



BARREN
TOKIKOM

Leizezulotik Herriko Antzokira





Blues Hotsak
www.blueshotsak.eus

SORALUZE-GIPUZKOA
HERRIKO ANTZOKIA
2021 Azaroa 19-28

KONTZERTU BAKOITZEKO BINA SARREREN
ZOKKETAN PARTE HARTZEKO:
www.barren.eus web gunean.



BLACK FRIDAY ASTEA!

SAUBER ARROPA LEHORGAILUA 5-8B SERIEA

399 €
(dendako prezioa)

A++

- Sauber Arropa lehorgailua 5-8B seriea
- Bero-ponpa.
- 8kg -ko karga.



MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@mlar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.



San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 067 337
Astehenerdik ostiralera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbatak: 11:00 - 13:00

Leopoldo zerbitzua daukagu.
Deitu ardua hartzen.

DANOBATGROUP

euskaraz
IZANGO GARA

HARTU PARTE DANOBATGROUP-EN
EUSKARAREN EGUNEKO LEHIAKETAN!

Sartu lehiaketako estekan, erantzun galdera eta irabazi gau berezi bat 2 lagunentzat Bizkaiko zuhaitz-etxe batean.

Parte hartzeko azken eguna:

2021eko **00:00**
AZAROAK 30

<https://info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2021.html>

DANOBATGROUP / DANOBAT / GOIKER / GOITI / IDEKO / LATZ / SORALUZE



2006 - 2021

Zuen laguntzak erraztu digu edertasunerantz bidaia.
15 urtetan bete duzue familia handi bat osatzeko gure nahia.
Zuek eder eta ni gogotsu bezain alai.
Mila esker, Olaia

Trenbide kalea 21, behe, ezk. - Elgoibar - **943 242 805**

Tiket hau ekarriz gero,
%15 eko deskontua lortuko duzu erosten duzun produktu edo zerbitzuan.
Urte bukaerara arteko balioa izango du.



O OLAI
MARTINEZ
ESTETIKA ZENTROA



azaroaren 22tik
abenduaren 5era

HASIERA EKITALDIA!!



Azaroak 22, astelehena, Maalako parkean, 18:00etan

Gonbidatuta zaudete:

- ✓ 0 eta 12 urte arteko umeak
- ✓ Adin horretako umeekin harreman zuzena daukazuen guraso, senitarteko eta zaintzaileok!

Aurkezpen ekitaldian ariketarako identifikagarriak salduko dira:



Lepoan jartzekoak,
ariketa egiten dihardugunean jartzeko (1 €)



Etxean jartzekoak, guraso eta seme-alabak
elkarrekin egoten diren guneren batean jartzeko (2 €).



ENETZ EZENARRO

Matematika irakaslea EHU

Ez da gutxi

Eguraldia aurreikusteko; erresonantzia eta tomografia bidez gorputz atalen irudiak eraikitzeke; internet eta telefono sare erraldoiaren kudeaketarako; epidemien analisirako; glaziarren urketa abiadura aurretateko; interneten email edo kreditu txartelen segurtasuna bermatzeko; haize nahiz trafikoaren bibrazioak jasango dituzten zubiak eraikitzeke; uni-bertsorearen sorrera eta etorkizuna ulertzeko; zorizko jokoetan irabazteko dauden aukerak neurtzeko; interneteko bi-

laketa motoreak (google bezalakoak) eraikitzeke; aseguru, finantza eta bankuen hainbat jardueretarako; hornidura kateen logistikaren antolaketarako; ekaitz gogorrak eta lurrikarak eutsiko dituzten eraikinak diseinatzeko; automobilen forma eta osagai desberdinak diseinatzeko; hizketaren errekonozimendurako teknologiarik eraikitzeke; sumendien erupzioak aurreikusteko; atrakzio parkeetako atrakzioen diseinurako; garraio publikoaren aspektu logistikoak planifikatzeko (ordutegia, ibilbidea); jende multzo handien mugimendua ulertu eta is-tripua ekitzeko; ordenagailu bidezko jolasak diseinatzeko; karbono 14 bidezko objektu arkeologikoen dataziorako; trafikoaren dinamika ulertu eta arazoak (bu-

xadurak...) ekitzeko; bidaia espazialak diseinatzeko; krimenak aurretan eta ekitzeko; skate parkeak diseinatzeko; populazioen (gizakiak, animaliak, landareak) dinamika aztertzeke; hauteskunde sistematik diseinatzeko; medikuntza eta farmakologiarako; koralezko arrezifeen gainbehera ulertzeko; maileguen interesak kalkulatzeko; etab.

Gizakiok mundua ulertzeko/ezagutzeko dugun gaitasunarekin estuki lotuta dago matematika. Hizkuntza, musika edo artea bezain berezkoa dugu. Eta zientziarik ez da posible matematikarik gabe. Zientziak gizakion baldintza materialak hobetzeko balio izan du. Agian ez da arazo guztien soluzioa izango, baina ez da gutxi.

*“Zientziarik ez da posible matematikarik gabe.
Zientziak gizakion baldintza materialak hobetzeko balio izan du”*



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Eusko Legearen Targak

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enetz Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Jone Olazola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasaola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► AMESGAIZTOA ULERTU NAHIAN

Ia bi urtez luzatzen ari den Covid19aren kudeaketari buruzko iritzi kritikoa dugun Elgoibarko eta Mendakoroko lagun talde anitz bat gara.

Lehenik, gure elkartasuna adierazi nahi diegu amesgaizto hau era larrian bizi izan duten herritar guztiei.

Bestetik, birusak berak eragindako kalte zuzenez gain, bizi dugun egoerak beste hamaika aurpegi ere badituela adierazi nahi dugu eta, ondorioz, denok ari garela oinazea jasaten.

Batzuk aipatzearren:

- Oinarrizko askatasunen zentzugabeko murrizketak. Horietako asko legez kanpokoak direla frogatu den arren.

- Hondamendi ekonomikoa eta prekariedade areagotuko duen ondorengo belaunaldien zorpetze larria.

- Sinestezinezko jazarpen mediatiko-politiko-sanitarioaren bitartez beldurraren politika muturreraino eraman eta eztabaida kritikoari ateak itxi izana.

- Erabakiak modu inprobisatuan hartu izanaren sentsazioa.

- Musukoaren gehiegikeria. Sarritan, babesa baino zigorra eta umiliazioa.

- Horren eraginkorrak ez omen diren txertoen ia derrigortzea, eta txertatu nahi ez dutenekiko bazterketa soziala eta kriminalizazioa. Bereziki larria haur eta nerabeei dagokienean. Non dago muga?

Zorionez, gero eta gehiago gara beldurra uxatu eta galderak egiten hasi garenak. Horren guztiaren atzean osasunetik harago dauden interesak al daude? Beldurra zabaldu nahi al dute bizikidetzan arrakalak sortzeko? Datu ofizialen arabera, Covidaren ondorioz hil direnen batez besteko adina 80 urtekoa bada, zergatik eta zertarako txertatu behar dira haurrak eta nerabeak botika esperimental batekin? Txertoa eraginkorra bada, ez al da nahikoa

arriskuan daudenak txertatzearekin? Oraindik ez dakigu txertoak zein ondorio izango dituen epe ertain eta luzera. Ondorioz, umeentzat arriskutsua ez den gaixotasun batetatik babesteko txerto esperimental bat jarri behar al diozu zure haurrari?

Zergatik haserretzen da zenbait jende galderak egite hutsarekin?

Zugan ere hainbat galdera sortu badira, jakin ezazu *Iratzargailua* izeneko Telegram kanal berria jarrai dezakezula (<https://t.me/iratzargailua>). Gonbidatuta zaude.

Bide batez, azaroaren 27an Bilbon osasunaren eta askatasunaren alde egingo den manifestazioan parte hartzeko deialdia luzatu nahi genuke. EITBko egoitzatik abiatuko da arratsaldeko 16:30ean.

Iratzargailua

► SANTA ANA KALERA BEGIRA

Herritarroi dagokigu gure bizigunean kalitatea mantentzen laguntzea eta, ahal bada, hobetzea.

Ardura horrek eraginda, hona hemen gaur egin nahi dudana oharra eta eskaera.

Santa Ana kaleko bizilagunok, garbi eta txukun ikusten ditugu kaleko fatxadak, batez ere azken aldian egin diren garbiketa eta pintaketekin eta, irisgarritasunaren mesedetan, atarrietan egindako lanei esker.

Beste kontu bat da Santa Ana kaleko zorura begira jartzen garenean. Egin zenean material egokia erabili ez zelako edo behar den moduan garbitzen ez delako, itsusi ikusten da kalea, beltz eta zikin.

Bizigunean konpontzen eta txukuntzen egin dugun ahalegina hankamotz geratzen da Udalaren aldetik mantenu egoki eta iraunkor bat ez badago. Zerbitzu berriak jartzea bezain garrantzitsua da dauzkagunak txukun eta garbi

mantentzea. Horretan egiten dugu huts. Dagokionak ohar hau aintzat hartu eta akatsak zuzentzeko neurriak hartuko dituelakoan.

K.G.

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENEk edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeetako zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleeraz datarren eskutitz argitaratuko.

150etik gorako intzidentzia duten herrietan aplikatuko dituzte neurri murriztaileak

Neurri murriztaile berriak iragarri zituen martitzenean Jaurlaritzak, eta eguaztenean sartu ziren indarrean. 100.000 biztanleko 150 kasuko intzidentzia metatua duten udalerrietan (Elgoibarrek 311,96koa du eta Mendarok 425ekoa) izango dute eragina. Mota guztietako ekitaldi jendetsuak ekiditeko neurriak direla esan zuen Gozone Sagardui Osasun sailburuak, eta ekintza jendetsuak bertan behera lagatzeko proposamena egin die intzidentzia-tasa 150etik gora duten Udalei. Neurri berriak urriaren 6ko aginduaren osagarri izango direla azaldu zuen Sagardui.



- Pilaketak aurreikusten diren tokietan jendearentzako espazioa handitzea.
- Bide-korridoreak ezartzea, pertsonen fluxu ordenatua errazteko.
- Elikagaiak eta edariak saltzeko eta kontsumitzeko guneak mugatzea.
- Ahal denean, jarduerak kanpoan antolatzea.
- Espazio itxietan eta 5.000 lagunetik gorako edukiera duten esparruetan antolatutako ekitaldietan % 80ko muga egongo da.
- Leku itxietan edota kanpoaldean egiten diren kirol eta kultur ekitaldietan debekatuta egongo da jatea eta edatea; ura bakarrik edan ahal izango da. Jateko eta edateko propio egokitutako lekuetan bakarrik kontsumitu ahal izango da.
- Musukoen erabilera derrigorrezkoa izango da barrualdeetan. Kanpoaldean ere bai, segurtasun tartea ezin bada errespetatu.

Herrien zerrenda

Astelehenean eguneratu zuten azken txosten epidemiologikoaren arabera, hauek dira neurri berriak ezarriko diren 5.000 biztanletik gorako udalerriak:

- ARABA: Agurain
- BIZKAIA: Abadiño, Bermeo, Berriz, Durango, Elorrio, Ermua, Gernika-Lumo, Gortiz, Lekeitio, Trapagaran, Zalla eta Zornotza.
- GIPUZKOA: Andoain, Aretxabaleta, Arrasate, Astigarraga, Azkoitia, Azpeitia, Basain, Bergara, Donostia, Eibar, Elgoibar, Errenteria, Hernani, Hondarribia, Irun, Lasarte-Oria, Lazkao, Legazpi, Lezo, Mutriku, Oiartzun, Oñati, Ordizia, Orío, Pasaia, Tolosa, Urnieta, Urretxu, Usurbil, Villabona, Zarautz, Zumaia eta Zumarraga.

Covid-19 pasaporte baimentzeko eskaera justiziarri

COVID ziurtagiria eskatzeko baimena eskatu dio Eusko Jaurlaritzak EAeko Auzitegi Nagusiarri. Sagardui aurreratatu du 12 urtetik gorako pertsonen baimena eskatzea aztertzen ari direla, gaueko aisialdiko establezimenduetan, musika eta dantza-jarduerak egiten diren establezimendu edo lekuetan, edo 50 mahaikide baino gehiagorentzako edukiera duten pertsona-talde handiak aldi berean egon daitezkeen jatetxeetan.

'Bakearen sukaldeak' mahaingurua, martitzenean

Udaleko Bizikidetza Mahaiak, Herritarren Bizikidetza Foroarekin elkarlanean Bizikidetza ereiten jardunaldiak antolatu ditu, eta horren barruan, *Bakearen sukaldeak* mahaingurua izango da datorren martitzenean. Arnaldo Otegi, Jesus Egiguren eta Pello Rubio batuko dituzte mahai baten bueltan, eta Baketik Fundazioko Maider Marañak gidatuta, 2000ko hamarmadan Txillarre baserrian bakerako bidean landu zituzten baldintzak izango dituzte hizpide. 19:00etan izango da, Musika Eskolako auditoriumean.



Amabirjina Milagrosaren egutegiak salgai daude

Astelehenean hasi ziren San Bartolome Parrokiako arduradunak Amabirjina Milagrosaren egutegiak saltzen. Aurten, Parrokiako Misio Taldeak Merkatu Plazan duen Bidezko Merkataritzaren postuan salduko dituzte goizez, 10:00etatik 12:30era, asteleheneetik ostiralera.

Era berean, jakinarazi dute aurten ez dutela ospatuko Milagrosaren Bederatziru-renik. Hala ere, azaroaren 27an, Milagrosa Egunean, eukaristia egingo dute parrokiaren, 19:00etatik aurrera.

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Eguna dela-eta ekitaldiak izango dira Elgoibarren eta Mendaron

Azaroaren 25a Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna izanik hainbat jarduera egingo dituzte Elgoibarren eta Mendaron. Zinema saioak bi izango dira Haizeak eta Ongarrik antolatuta: *Las Elegidas* eta *Sólo una vez*. Zapaturako, berriz, emakumeentzako autodefentsa tailerra antolatu du Olaizaga Karate Taldeak, eta astelehen eta martitzen arratsaldean tratu onen fotokola egingo dute Ludotekan haurrentzat. Azaroaren 25ean Mekan eta Albitxurin elkarretaratzeak egingo dituzte ikastetxeen aurrean 10:45ean eta arratsaldean manifestazioa izango da herriko kaleetam indarkeria matxista gaitzesteko, 19:00etan Kalegoen plazan hasita. Narrutsik taldeak ere antolatu ditu, besteak beste, buru-berokien tailerra, pankarta egitea eta azaroaren 25eko manifestazioa antolatzeko afaria.

Mendaroko Udalak eta herriko eragileek ere ekintza sorta antolatu dute. Azaroaren 23an, *Ez nazazu hainbeste maite, maite nazazu hobeto*. Indarkeriaren aurpegi guztiak hitzaldia izango da; 25ean elkarretaratzea *Aski da! ¡Ni una menos!* lelopean; eta 27an *Evaren alabak* antzezlan. Ekintzak doakoak dira baina izena aurrez eman behar da gizartekintza@mendaro.eus helbidean edo whatsapp bidez 747 443 681 zenbakian. Ludotekan eta Gaztelekuan eskulanak, ipuinak, ginkana, tribiala eta film laburra izango dituzte berdintasuna eta emakumeenganako indarkeria gaitzat hartuta. Informazio zehatza agendan dago.

Elikagai bilketa bonu bidez egingo dute aurten

Gaur eta bihar Gipuzkoako Elikagaien Bankuak Elikagai Bilketa Handia egingo du. Boluntarioak merkataritza guneetan egongo dira 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara artean. Txaleko bereizgarriak izango dituzte boluntarioek eta herritarrei informazioa emango diete bilketa nola egingo den azalduz. Izan ere, pandemia egoera dela-eta, laguntza bonuetan soilik jasotzea erabaki dute.

Jubilatuentzako ekintzak datorren astean

Elgoibarko Jubilatuen Biltokiak antolatuta hainbat ekintza egingo dituzte datorren astean jubilatuek omentzeko. Astelehenean eta martitzenean, 18:00etan, txokolatada izango dute eta eguaztenean *Abuelos* filma ikusteko aukera egingo da 17:00etan.

Bestalde, Covid-19a dela-eta aurten ez da bazkaririk izango 80 urtetik gorako bazkideekin, baina urrezko ezteiak bete dituzten bikoteak omenduko dituzte eguenean 12:00etan. Txokolatadetarako eta omenaldirako aurrez izena eman behar da Biltokiko bulegoan.

Barikuan, 18:00etan, Gabonetako otarren zozketa egingo dute eta aurten bikoiztu egin dute otar kopurua. Zapatuan kina berezia izango da 16:30ean eta domekan, 11:30ean hildakoen omenez meza.

Odol-ematea Mendaron

Gaur, azaroak 19, odol-ematea izango da Mendaron. 16:30etik 20:10era bitartean egingo dute odolateratzea ikastolan. Herritarrek gonbidatu nahi dituzte joatera, izan ere odol beharra dago.

Gipuzkoako EAJren '2030. Etorkizuneko erronkak' topaketan hartu du parte Ane Beitiak

Hainbat erakundetako eta EAJko 50 ordezkari, Elgoibarko alkate Ane Beitia tarteko, 2030. Etorkizuneko erronkak lan-topaketa egin zuten azaroaren 13an. Euskadin garapen jasangarriko helburuak abian jartzeko ekintzak partekatu eta landu zituzten han. Jakinarazi zuten, justizia soziala, berdintasuna, lehiakortasun ekonomikoa eta elkartasuna dira eredu sozioekonomikoaren oinarri eta horiek hartuko dituzte kontuan etorkizuneko politikak inspiratzeko eta herrien eta biztanleen aurrerabidea eta ongizatea bermatzeko.



Covid-19ak Elgoibarko umeengan izan duen eragina aztertu du Udalak eta babes eta sustapen lan-ildoak jarri ditu abian

Elgoibarko haurren errealitatea Covid-19 egoeran 2020/2021 azterketa egin du Udalak, osasun pandemiak haurrengan izan duen eragina aztertu eta neurriak hartzeko. Azterketa Elgoibarko Udalak bideratu du Ludotekaren bitartez, eta herriko hezkuntza zentroen parte-hartzearekin. Eguaztenean aurkeztu zuten diagnosia Ludotekan, azaroaren 20ko Haurren eta Nerabeen Eskubideen Nazioarteko Egunaren bezperatan, azterketan parte hartu duten eragileek: Maialen Gurrutxaga, Haur, Nerabe eta Gazteen Saileko zinegotzia, Maialen Aranguren Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapenerako teknikaria, Maria Cid Ludotekako Hezitzailea, Rakel Aguirre Ormaetxea Herri Eskolako Zuzendaria, Joseba Sagasta Ikastolako Ikasketa Burua eta azterketaren parte izan diren lau gaztetxok: Martin Mujika Cid, Lea Barrutia Cristobal, Karim Eddayaz Rodriguez eta Aiora Carcedo Dominguez.

Elgoibarrek 11.580 biztanle ditu eta horietatik 894 dira 4 eta 11 urte artekoak. Diagnosi honetan Herri Eskolako eta Ikastolako HH5 eta LH6 arteko 240 haurrek eta 138 familiak hartu dute parte, guraso eta hezitzaileak barne. Sei bloketan banatu dute azterketa, eta arlo bako-



tzerako lan ildoak zehaztu dituzte. Hauek izan dira aztertu dituzten alorrak: Aisialdiko ohiturak, lagun arteko eta familia arteko harremanak, eskolako esperientzia, teknologia eta herriaren ikuspegia. Ondorioen artean, ludoteka zerbitzua aisialdiari lotuta familia askorentzat erreferentziazkoa dela nabarmendu dute, eta zerbitzua hobetzeko proposamenak ere jaso dituzte. Lagunen harremanei buruz, harreman birtualak areagotu egin direla diote, eta teknologiaren erabilera egokia egiteko haurrak trebatu beharra ikusi dute. Familia egiturari, bestalde, pandemiak eragin handia izan duela ondorioztatu dute, harreman batzuk sendotuz eta beste batzuk zailduz, eta eskola, aldiz, umeentzako ba-

besgune dela jaso dute diagnosian, ingurune segurua, alegia. Herriaren ikuspegiari buruz esan dute beharrezkoa dela umeen iritzia aintzat hartzea eurentzako zerbitzuak diseinatzerakoan, eta haurrentzako espazioak berrikusteko beharra dagoela adierazi dute.

2020ko urritik abendura bitartean haurrekin egindako diagnosi parte-hartzaile honen bidez, haurren beharrak jaso nahi izan ditu Udalak, haurra subjektu aktibo gisa hartuz, beraiekin batera beraientzako zerbitzua garatzeko. Haurrak erdigunean jarri nahi izan dituzte, haiei ahotsa emanez, hiritar aktiboak eta komunitateko partaideak izan daitezten.

Miloi bat euroko saria laga du Elgoibarren 'Euromillones' zozketak

Azaroaren 16an, egin zen *El Millon de Euromillones* zozketak miloi bat euroko saria laga du Elgoibarren. Zozketako saria BM supermerkatuan dagoen Rosa liburu dendan balioztatutako txartel batek irabazi du, duela sei urte ere, 2015ean, miloi bat euroko saria banatu zuen establezimendu berean. Primitiban eginiko apustu bategatik izan zen ordukoan.

Mendaroko Udalak Euskara Eskolak jarri ditu martxan, HABErekin elkarlanean

Mendaroko Udalak, HABE Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundearekin batera, Euskara Eskolak jarri ditu martxan Arnorekin eta UEMArekin elkarlanean. Gaur egun bost ikaslek parte hartzen dute, bi orduko eskolekin aste tarteko egun guztietan. Aurreko urrats gisa, Udalak, UEMArekin eta Arno Guraso Elkartearekin, euskara ikasteko ikastaro bat jarri zuen abian apiriletik ekainera, eta 11 lagunek hartu zuten parte. Astean bitan elkartzen ziren, bi orduz euskara ikasteko. Ikastaroan parte hartu zuten hiru lagunek euskara ikasten jarraitzen dute gaur egun Euskaltegian.

17.663.500 euroko aurrekontua proposatu du Udal Gobernuak 2022rako, aurtengoa baino milioi bat euro handiagoa

E lgoibarko Udal Gobernuak 2022rako aurrekontu proposamena aurkeztu du: 17.663.500 eurokoa izango da, 2021ekoa baino %4,27 handiagoa. Ane Beitia alkateak, Atsegin Uzuriaga Ogasun zinegotziak eta Ariana Nogales Pertsonaleko zinegotziak aurkeztu dute aurrekontua, eta esan dute helburua dela herritarren ongizatea bermatzea eta bizi kalitatea hobetzea, eta herri aurreratua eraikitzen jarraitzea, alor sozialean, ekonomikoan zein jasangarrian. Era berean esan dute "zuhurtziaz baina anbizioz" erantzun diotela Covid-19aren pandemia osteko berrakibatuzko garaiari. Covid-19ak elgoibartarengan eragin zuzua izan duela uste dute, baina une zailenak atzean utzita, errekupeazio garai batean gaudela diote, eta Udaletik programa, zerbitzu eta mekanismoak martxan jarriko dituztela esan dute, inor atzean geratu ez dadin.

Gizarte ongizatea, %49 gora

Aurrekontuaren %28 Gizarte Ongizate Sailera bideratzea proposatu dute: 5.100.000 euro. Gizarte zerbitzuetako partida 1.724.552,02 eurokoa izango litzateke, iaz baino %49 handiagoa. Era berean iragarri dute, Udalak apustu berezia egingo duela kultura suspertzeko eta kaleak berriz ere kolorez eta doinu bezetzeko. Kultura Sailaren aurrekontuak %5 egingo du gora, 50.000 euro gehiago, alegia, guztira 564.751 euro. Nabarmendu dute auzoetako jaien partida hirukoiztu egingo dutela, 19.500 eurora.

Hezkuntza eta Euskarari dagokionean ahalegin berezia egingo dutela adierazi dute, eta bi esparruen partidak %13 handitzeko proposamena egin dute. Gazterian %7ko igoera aurreikusi dute, Ludoteka berria kontuan hartu gabe.



Azkenik, herriko elkarte, eragile eta erakunde ezberdinei ematen zaizkien diru-laguntza guztiak areagotuko dituztela esan dute: Gizarte zerbitzuak, Kultur laguntzak, Euskara alorreko eragileak, herri hedabideak, berdintasuna edota hezkuntza, esaterako. Gazteei begira emantzipazioa bultzatzeko laguntzak iragarri dituzte besteak beste, eta merkataritza eta ostalaritza sustatzeko kanpainak mantendu eta negozio berriak zabaltzeko diru-laguntza lerro berri bat jarriko dutela abian azaldu dute.

Udal egitura

Herritartasuna: 6.268.088,28 euro. Sustapen ekonomikoa, bizikidetzaz, parte-hartez, lagunkoia eta obra ugari (Herri Eskolako instalazio elektrikoa, ludoteka, eta aldagelak).

Lurralde atala: 6.855.296,53 euro. Hirigintza eta lan guztiak herritartasuneko obrak kenduta.

Antolakuntza: 4.559.980,76 euro. Udal Sailak.

INBERTSIOAK

Inbertsioetara ia 2.300.000 euro bideratzea proposatu dute. Honakoak dira aurreikusi dituzten inbertsio nagusiak:

- Errotaberriko igogailua: 560.000 €
- Ludoteka berria: 260.000 €
- Sigma auzoa, Estartako etxeen irisgarritasuna: 255.000 €
- Parte-hartzea: 220.000 €
- Mugiezinetan konponketak: 100.000 €
- Herriko Antzokiko kamerinoak: 65.000 €
- Urazandi auzoko irteera: 25.000 €
- Plaka futboltaikoen ezarpena udal eraikinetan: 60.000 €
- Kaleen konponketak irisgarriago egiteko: 250.000 €
- Altxolako heldulekuak eta hiri altzariak: 25.000 €
- Hiri-altzariak erostea: 105.000 €
- Jolas parkeak: 100.000 €
- Txakurrentzako parkeak: 15.000 €
- Kalistenia parkea: 25.000 €
- Ekipamendu egokituaren erostea: 3.000 €
- Gizarte zerbitzuen zorroa: 40.000 €
- Herri Eskolako instalazio elektrikoa: 45.000 €
- Magnet zientzi espazioa: 15.000 €
- Teknologia berriak: 3.000 €
- Liburutegirako liburuen erosketak: 15.000 €
- Bilduma dokumentazioa: 1.200 €
- Landareetako lanak egiteagatik: 18.000 €
- Bulego ekipoa: 5.000 €
- Informazio-prozesuak: 15.000 €



► **SOHELEN
VARGAS**
TAUPADAKO KIDEA

“Antzerkian sekula egin dudan lanik zailena izango da domekakoa”

2019an iritsi zen Soheleen Vargas (Virginia, 1995) Euskal Herrira. Estatubatuarra da, Virginiakoa, hain zuzen ere, baina bidaiatzea gustuko du eta hizkuntzak maite ditu. Eibarrera iritsi zen, Hizkuntza Eskola Ofizialean ingeles eskolak emateko lan kontratuarekin, eta bere ikasle baten bitartez, Elgoibarrera etorri zen bizitzera. Arte ikasketak eginak ditu eta antzerkigintza izugarri gustatzen zaio. Taupada taldeko arduradunekin jarri zen harremanetan, eta taldeko kide da gaur egun. Domekan egingo du debuta, Argitxo Iratxoaren obran.

- AINHOA ANDONEGI -

◆ Noiz eta nola iritsi zinen Elgoibarrera?

Unibertitate ikasketen azken sei hila-beteak Granadan egin nituen, Antzerkia eta Espainiera ikasten. Estatu Batuetan hasi nituen ikasketak, eta Espainian amaitu nituen. 2019ko udaberrian iritsi nintzen Granadara, eta han nengoela Espainiako Hezkuntza Ministerioak zeukan programa baten berri izan nuen. Programa horretan eman nuen izena, eta horri esker, Eibarko Hizkuntza Eskola Ofizialean ingelesa irakasteko aukera eskaini zidaten. Granadako sei hilekoa bukatu nuenean Estatu Batuetara itzuli nintzen graduatzera, eta graduazioaren ostean, etorri nintzen hona, 2019ko azaroan, ingeles eskolak ematera. Hizkuntzak asko gustatzen zaizkit, baina ez nengoen ohituta irakastera,

eta hasieran kostatu egin zitzaidan. Bazi-rudien etengabe ingelesa ikasi behar nuela. Ahoskera, bereziki, landu behar izan nuen, ikasleek ondo uler zezaten.

◆ Eibarren hasi zinen lanean, baina Elgoibarren aurkitu zenuen bizilekua.

Bai. Ez zen erraza izan bizitzeko lekua aurkitzea. Nire ikasle baten bitartez, Josu Cuende ezagutu nuen, eta haien etxean bizitzen jarri nintzen. Oso familia jatorra eta atsegina da, eta beraiekin bizi naiz oraindik ere. Josu, Aitor eta Nerearekin bizi naiz, eta oso gustura nago. Eibarko lana bukatu zitzaidan, eta orain Elgoibarren bizitzeaz gain, hemen egiten dut lan akademia batean. Ingelesa irakasten dut eta euskara ikasten nabil.

◆ Bazeneukan euskararen berri hona

iritsi aurretik?

Granadan ikasten nuenean izan nuen euskararen berri, eta berehala piztu zitzaidan interesa. Hizkuntzak asko gustatzen zaizkit: eskolan hiru urtez frantsesa ikasi nuen, urtebetez alemaniera eta beste bi urtez latina. Hala ere, une honetan esan dezaket bi hizkuntzatan bakarrik moldatzen naizela ondo; ingelesez eta gaztelaniaz. Gainerakoak ez ditut asko erabili eta hizkuntza bat ez bada erabiltzen, galdu egiten da. Jende asko harritzen da esaten diedanean hizkuntza horiek guztiak ikasi izan ditudala, baina niri harrigarriagoa egiten zait hemengo jendearen gaitasuna. Hemengo herritar askok hiru hizkuntza menperatzen dituzte, eta niri hori sekulakoa iruditzen zait. Gaztelania

eta euskara ia jende guztiak dakizki, oinarrizkoa bada ere, eta askok ingelesa ere menperatzen dute.

◆ **Zer iruditzen zaizu euskara?**

Polita iruditzen zait. Bati baino gehiagori entzun izan diot euskara oso jende gutxi hitz egiten duela eta ez duela ezertarako balio, ez dela ingelesa edo alemaniera modukoa, eta hori entzuteak pena ematen dit. Niretzako hizkuntza aberatsa da, eta hitz eta esamolde oso politak dituela iruditzen zait.

◆ **Zer iruditzen zaizu Euskal Herriko bizimodua?**

Estatu Batuetakoarekin alderatuta, oso desberdina da. Estatu Batuetan oso ohikoa da kalean norbaitekin gurutzatu eta zer moduz dagoen galdetzea, baina erantzunik espero gabe, ez gara geratzen eta oinez goazen bitartean erantzun eta aurrera segitzen dugu. Hemen galdetzen badiozu norbaiti zer moduz dagoen geratu egiten da eta erantzun egiten du. Jendea oso jatorra iruditzen zait.

◆ **Hizkuntzez gain, antzerkia ere gustatzen zaizu. Nola iritsi zinen Taupadara?**

Betidanik gustatu izan zait. Antzerki zuzendari izateko ikasketak egin nituen Estatu Batuetan, eta antzerki obra bat ere zuzendu nuen. Taupadara Nerea Cuenderen bitartez iritsi nintzen. Ibai Leon eta Nagore Cid ezagutzen zituen berak, eta Ibaik hitz egin zuen Edurne Lasarekin. Irailean hasi nintzen entseguetan, eta berehala galdetu zidaten ea hurrengo antzezlanean parte hartu nahi nuen. Harritu egin nintzen eskaintzarekin, baina baietz esan nien berehala, jakina. Sekulako pazientzia izan dute nirekin, eta nigan jarritako konfiantza eskertu nahi diet. Taldeak euskaraz funtzionatzen du, baina niri eman dizkirate beharrezko argibideak gaztelaniaz, eta oso-oso ondo hartu naute taldean.

◆ **Igandean egingo duzu debuta Herriko Antzokian, Argitxo Iratxoaren obran, amamaren paperean.**

Bai, urduri nago. Amamaren papera egingo dut. Eskaini zidatenean baietz esan nuen, egingo nuela, baina orduan ez nekien amamak narratzaile papera

“Taupadako kideek sekulako pazientzia izan dute nirekin eta nigan jarritako konfiantza eskertu nahi diet”

bete behar zuenik. Asko lagundu didate guztiak, bai zuzendariak eta baita nirekin oholztan arituko diren beste aktoreek ere. Ni amama izango naiz, Oihane {Gartzia} Dunixe, nire biloba, eta Ibai {Leon} eta David {Rodriguez} Dunixeren lagunak.

◆ **Herriko Antzokiko oholztara irtengo zara, euskaraz antzeztera.**

Bai, erronka handia da, eta orain arte antzerkian egin dudan lanik zailena izango da domekakoa, zalantzarik gabe. Aktore lanak egiteaz gain, euskaraz egin behar dut. Aditzak eta esaldietan etenak ondo egitea iruditu zait zailena. Azken batean esaldiak esanahia izan dezan ezin dut edozein lekutan moztu, eta eten horiek bere lekuan egitea zaila egin zait. Hitzentzuz ere garrantzitsua da, eta hitz bakoitzari bere lekuan jarri behar zaio indarra, bestela zentzua aldatzen zaio. Lan handia egin dut eta espero dut ondo irtetea. Testua behin eta berriz idatzi dut koaderno batean, eta gero, esaldiak behin eta berriz errepikatu ditut, buruz

ikasteko. Nire testua ikasteaz gain, istorioa bera ulertu behar izan dut, ez delako balio testua buruz esateak. Gainerako aktoreak entzutea eta ulertzea ezinbestekoa da, nire txanda noiz den jakiteko.

◆ **Noiz arte geratzeko asmoa daukazu Euskal Herrian?**

Ez dakit, baina oraindik ez dut nahi beste ezagutu Euskal Herria. Pandemia iritsi zen, eta 2020ko martxoan etxeratu gintuzten, beraz, udaberria ia osorik galdu nuen. Udaberri-uda aldeko jaialdi eta festak ezagutu nahi nituzke Euskal Herria utzi aurretik.

◆ **Eta, Euskal Herriatik, nora joango zara?**

Ez dakit nora joango naizen, baina badakit Estatu Batuetara ez naizela itzuliko oraindik. Beste herrialde bat eta beste hizkuntza bat ikastea gustatuko litzaidake. Aukera desberdinak ditut esku artean: Unibertsitateko lagun bat ingeles irakaslea da Shanghain (Txina), eta hori izan daiteke aukera bat. Granadan egon nintzenean Egiptoko neska bat ere ezagutu nuen, eta India edo Nepaleko lagun batzuk ere baditut, eta Alemaniara joateko prest dagoen lagun bat ere bai. Ez daukat batere argi non bukatuko dudan, baina bidaiatzea izugarri gustatzen zait, eta ahal dudan bitartean herrialdeak, kultura eta hizkuntza desberdinak ezagutzea gustatuko litzaidake.



Argitxo Iratxoa: orain dela 35 urte Taupadaren baratzean landatutako altxorra



Leizezuloa utziko du Argitxok domekan, Herriko Antzokira etortzeko, estreinakoz. Ez da barririk egongo: Amama Oneida, Dunixe biloba, eta haren lagun Piku eta Kiro ere oholztan izango dira-eta. Sohelen Vargas (amama Oneida), Oihane Gartzia (Dunixe), Ibai Leon (Piku) eta David Rodriguez (Kiro) izango dira aktoreak, Edurne Lasaren zuzendaritzapean, eta Jose Mari Larrañaga arituko da lan teknikoan. Badira urte batzuk, Oneida Condori bere alabatxoarekin Estatu Batuetatik Euskal Herrira etorri zela, hain zuzen ere Jon Astarloa bere senarra hil zenean. Harri Gogor baserrian aitaginarrak besok zabalik hartu zituen. Oneidak xarma berezia du, axtiaren xarma duela esan daiteke. Amu herrian ipuin kontalari lanetan aritzen zen, eta oso maitatua zen. Oneidaren alabak umetxoia izan zuen eta Dunixe izena jarri zioten. Dunixe oso neska alaia da, eta bere gurasoekin eta amama Oneidarekin pozik bizi da Harri Gogor baserrian. Ikastetxean lagun minak egin ditu, Piku eta Kiro izenekoak, eta haiekin elkartzan denean mugikorrek jolasten aritzen dira. Kirok eta Pikuk ez dute ezer egiten mugikorrera begiratu gabe, baina Dunixeri kantuan eta dantzan aritzea gustatzen zaio. Eta, jakina, amama Oneidaren ipuinak entzutea ere gustuko du. Amamaren magalean eserita ipuin asko entzun ditu, baina gehien gustatzen zaiona Argitxo Iratxoaren ipuina da. Amama Oneidak Argitxoren istorioa kontatuko dio. Dunixek lo hartuko du eta amets polit bat izango du Argitxo Iratxoarekin.

Edurne Lasak eta Jose Mari Larrañagak orain dela 35 urte ikusi zuten Argitxo Iratxoa pegatina batean, eta laxe teko panpina sortzea erabaki zuten. "Gure antzerkiko baratzean ilusio biziz landatutako altxorra da Argitxo". Argitxoren sortzailea irakasle nafar bat zela jakin zuten, eta harengana jo zuten panpina sortzeko baimen eske: "Gure ideia oso polita iruditu zitzaion, eta aurrera egin genuen". Bihotza jarri zioten Edurnek eta Larrak Argitxori, eta bera arnasten hasi zen. Txikitxikia zen, eta ikusezina bihurtzen zenez, edozein tokitan ezkutatzen zen. Bere Leize-zuloaren ondoan Mari Sorgina, azeria, txoriak... bizi ziren, eta beraiekin euskaraz hitz egiten zuten. Argitxoren nahia lagunak egitea eta euskaraz mintzatzea zen, eta horretarako bere magia baliatzen

zen. Edurne eta Larrak emanaldi pila bat egin zituzten Argitxorekin ikastolaz-ikastola, haurrak euskaraz egitera animatzeko. 35 urte pasatu dira ordutik, baina Argitxo axtiak ez du bere xarma galdu, eta Taupada antzerki taldean oso maitea dute.

Aktore berriak

Osasuntsu dago Taupada, eta domekan aktore berriak ikusiko ditugu Herriko Antzokiko oholztan: Sohelen Vargas eta David Rodriguez. "Sohelen estatubatuarra da eta gidoia euskaraz ikastea erronka handia izan da berarentzat, baina izugarri saiatzen ari da. David oso saiatua da eta gozatzen ari dela ikusten dugu", adierazi dute Edurnek eta Larrak.

Aurrera begira, *Bainuetxea* antzezlanaren beste emanaldi bat eskainiko dute. Abenduaren 3an izango da, Mendaroko San Agustin kulturgunean. Eta maiatzean, beriz, *Zinemakopa* antzezlanaren eramango dute Herriko Antzokiko oholztara, baina formato handian. Pandemiaren eraginez formato txikira egokitu behar izan zuten, baina datorren udaberrian 11 aktore igoko dira Herriko Antzokiko oholztara.



Arg.: Manu Sanchez

ETORKIZUNA ERAIKIZ CONGRESS

Building the Future

**Kursaal
Abenduak
13-14
2021**

Kongresu honen xede nagusia Etorkizuna Eraikiz ekimena nazioartean aurkeztea eta kontrastatzea da. Izan ere, Etorkizuna Eraikiz gobernantza irekia eta lankidetzazkoa ulertzeko eta ezartzeko modua da. Gipuzkoa Foru Aldundiak sustatua eta finantzatua, Euskal Herriko Unibertsitatearen, Deustuko Unibertsitatearen eta Mondragon Unibertsitatearen parte-hartze aktiboarekin. Hauek dira Kongresua antolatzen duten lau erakundeak.

Izen-ematea:

www.etorkizunaeraikizcongress.com



GIPUZKOA
ETORKIZUNA
OBAR



Universidad
del País Vasco



Euzko Legebiltzaria

Deusto
Universidad de Deusto



Mondragon
Unibertsitatea

RPS 183/12

Uzuri ELGOIBAR - DEBA
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar - 943 740 359

www.uzurioptika.com

BLACK WEEK

Azaroak 22-27

-%20KO DESKONTUA EGUZKITAKO BETAURREKOETAN

-%15EKO DESKONTUA BETAURREKO GRADUATUETAN

-%15EKO DESKONTUA LENTILETAN

EZ DA BESTE ESKAINTZA BATZUEKIN METAGARRIA

GUTXIENeko
DESKONTUAK DIRA!

DESKONTU GEHIAGO OUTLET
BILDUMAN

“Beldur sentsaziorik ez dut izan mendia ez delako teknikoa, baina alturak eragin dit”



▶ AINHOA LENDINEZ MENDIZALEA

Orain dela bi urte Everest Trail Race lasterketan hartu zuen parte Ainhoa Lendinezek. Munduko mendirik garaienatarikoak dauden gune horretara, Nepalera, itzultzea pentsatu zuen, baina dortsalik gabe, mendiaz beste modu batera gozatzeko. Mera Peak (6.476m.) mendira estreinako espedizioa egin du bost emakume talde batean. Altuerak eraginda gogorra izan da espedizioa, baina era berean gailurrera igotzeak ezezik inguruan ikusitakoarekin eta bizi izandakoarekin gustura itzuli da, berriz noizbait Himalayara bueltatzeko idearekin. Oraingo Himalayan utzi gabeko azken indarrak Karakateko Igoeran hustuko ditu zapatuan.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

◆ Aurrez Nepalera mendi lasterketa batera joan ostean, nola hartu zenuen aurten hango mendietara itzultzeko erabakia?

Aurtengoa nahiko urte arraroa izan da niretzat. Abenduan operatu egin ninduten eta ordura arte anemia izan da nire arazo nagusia, baina operazioaren ondoren dezent behar izan dut sendatzeko: itolarria, zorabioak... Udaberrian hobeto sentitzen hasi eta Pirinioetan eta Alpeetan ibili ondoren, Himalayara joatekotan urrian izan behar zela pentsatu nuen. Trekingerako hila bete behar izaten da, baina tontor hau egiteko gutxiagorekin moldatu nintekenez joatea erabaki nuen. Ez da lasterketa lekuan izan, baina orduan ere abiapuntua Luklan izan zen. Oraingoan beste alderantz hasi genuen bidea.

◆ Bost emakume joan zarete zuen espedizioan. Askori harritzekoa irudituko zitzaion Himalayako espedizio batean bost emakume elkarrekin ikustea, ezta?

Lasterketa hartan ezagutu nuen Palentziako lagun batekin hitz egin nuen Nepalera joateko; gero Berrituako beste lagun batek Kilimanjarora joateko asmoa zuen, baina Nepalera etortzeko gonbitea egin nion, eta Palentziako lagunak beste bi neska gonbidatuta sortu genuen taldea. Bost neska joan gara eta ahizpak izango bagina bezala egon gara, barrez eta berriketan mendian jardun ondoren. Bi lagunekin joan nintzen eta orain beste bi dauzkat mendirako planak egiteko.

Zamaketiariak eta gidariak denak gizonetzkoak ziren eta beraiek pozik zeuden ikuspegi matxistatik erreparatuz gero. Bidean ere jendeak galdetzen zigun ea denak neskak ote ginen, ez baitzeuden ohituta horrelako taldeak ikustera. Bueltan

Santanderreko emakume batek gu ikusita poza hartu zuen. Gu ere pozik bai, baina honek ez luke atentzioa eman behar, nahiz eta guk ere ez dugun neskaz bakarrik osatutako talderik ikusi. Ni beti ibili izan naiz mutilekin kirola egiten eta azken urteotan lortu dut neskak ondoan edukitzea eta oso gustura nago, ez nuke ezertxo ere aldatuko. Hango bizimoduak gure errealitatearekin alderatuta ez dauka zerikusirik gizon-emakumeen egoerari erreparatuz gero, beste mundu bat da. Gauza batzuetan gu baino aurreratago daude, beste batzuetan, ordea, atzeratago, bizi kalitatea eta mentalitatea ere bestelakoa daukate. Nik espedizioa lasterketarekin alderatuta beste modu batean bizi nahi nuen. Hala ere, polita bezain gogorra izan da.

“Bost emakume joan gara espedizioan eta jendea ez dago ohituta horrelako taldeak ikustera”

◆ Hemendik ikusten ditugun irudiak politak bezain beldurgarriak dira.

Nik beldur sentsaziorik ez dut izan, mendia bera ez zelako tekniko, baina altura izan da oztopoa. Gailurrera joan ziren japoniar eta errusiar batzuek argazkiak erakutsi zizkiguten eta ez zen ezer ikusten, hortaz, ezer ikusi ezean istripu bat izateko aukerak handitzen dira. Konturatu naiz dimentsioak eta altuerak ez dutela zerikusirik. Trekingeko lehen hiru egunetan euri mardoa eta sekulako hotza izan ge-

nuen. Hango mendi-aterpeak nahiko txukun daude, baina barruan kanpoan baino hotz handiagoa egiten du. Lumazko zaku barruan lumazko berokiarekin sartzen ginen eta hurrengo egunerako arrokekin pixka bat lehertzeko. Lehen egunetako trekingetako hotz hori gogorra izan zen. Gainera elur-jauzi bat ikusi genuen parea eta zirrara eragin zidan.

Azken herrixkatik gora argitu egin zuen, baina goiz batean esan ziguten zarmaketari bat hil zela gure aterpean mendiko gaitzak jota. Altuera eremura (5.300 m.) iritsi ginenean ere bi mendizale desagertuta zeudela esan ziguten eta erreskatatutak ere egon ziren.

◆ Zuri alturak eragin al dizu gaitzik?

Egun gutxi izan ditugu aklimatatzeko eta eguraldi txarra zegoenez gailurrerako iragarrita geneuzkan bi egunak aurreratu behar izan genituen.

2014an Mont Blancen sekulako goimina izan nuen, bost pauso eman orduko pioletaren laguntza ezinbestekoa nuen. Gero Kilimanjaron txikiagoa, eta aurten berriz, Mont Blancen ezer ere ez. Nepalera lasaiago joan naiz gehiago ibilita nengoelako, baina min oso gogorra sentitu nuen.

5.700 metroan bost nesketatik bi botaka hasi ziren eta ez zutela jarraituko esan zuten. Beste hirurok saiatzea erabaki genuen. Hilekoa, urdaila itxita eta hotzaren orde berroa sentitu nuen, eta bete-betean ez nengoenez buelta hartzea pentsatu nuen. Baina gidariak pultsazioak neurtu zizkidan eta ondo nengoela esan zidan. Altura kontua zen dena. Lepora iritsi eta azken ertza ikusita han gelditzea erabaki nuen, baina lagunak esan zidan: *zure aitari sekulako ilusioa egingo dio*. Bi



Espedizioko talde guztia, sherpa eta zamaketariekin, Kharen (4.900 metro).

malko bota eta azken 20 minutu horiek izan ziren gehien gozatu nituenak. Espedizioan gustura ibili arren, egun hori kalbario bat izan zen. Ezin dut imajinatu 8.000 metroko bat zer den.

♦ **Zure helburua, baina, gailurrera igotzea zen?**

Bai, niri mendi tontorretaraino igotzea umetatik gustatu izan zait eta txikitan zerrenda bat neukan Piriniotan igo nahi nituen tontorrek. Orain ere eguraldi txarra edo beste oztoporen bat egon arren, beste batzuei baino gehiago kostatzen zait buelta ematea. Mera Peaken ere nire ilusioa gailurrera iristea zen, baina hain gaizki egonda zalantzak sortu zitzaizkidan, nahiz eta arriskutsua ez izan.

Hamabost egun mendian pasatzea zen nire asmoa, mendiak asko betetzen bainau. Mendian funtzionatzen du ondoen nire gorputzak, buruak, elikadurak, loak, denak. Jaisterakoan, hala ere, behar izan nuen eta ahuldadeak gogortu egin du espedizioa. Nepalen pentsatzen nuen ea haraino joan behar al nuen familiakoekin gogoratzeko eta hona etorrita harekin akordatzen nintzen.

♦ **Hango paisaiekin gozatuko zenuen baina.**

Nahiko azkar igo ginen tontorrera, baina gero izan ginen kontziente egin ge-

“Himalayara berriz itzuliko naiz noizbait, baina orain lehen helburua Karakateko Igoera da”

nuen harekin. Goi-minak ere eragin zidan hortaz gertatutakoez eta ikusitakoez hainbat hutsune badauzkat buruan. Baina paisaiak oso politak dira. Trekinga baso batean barrena egin genuen kolore deigarriekin. Mendiatar inguratzen hasi ginenan sekulako ikuspegiekin gozatu genuen. Lasterketa egin nuenean izenean Everest izan arren, oraingoan Everest gertuago ikusi dugu, baita Makalu Cho Oyu... 5.000 metrora igo ginenean menditxo batera inguratzeko gomendatu zigiten aklimataziorako on egingo zigulako eta handik atera genituen argazkiak ere zoragarriak izan ziren, ilunabarreko argiarekin eta mendiak elurtuta.

♦ **Hango bizilagunekin egon zarete?**

Bai, beraiekin egon gara. Saiatzen dira ahalik eta diru gehien ateratzen, baina era berean oso adeitsuak dira. Familiak etortzen ziren gurekin. Gauean harritzko etxola batean lo egin genuen eta

beraiek sukaldea zegoen ondoko txabolan. Han jan nituen sekula jan ditudan patata frijiturik onenak. Lotsetan egin dugu lo eta hemengo lagunei esanez gero horrelako toki batean lo egiteko ordaindu egin dudala ez lukete sinetsiko, Elgoibarko txabola eskasena baino okerragoak baitira. Katmandun ere egon ginen eta niretzat turismorako oso polita da, baina pare bat egunerako, bestela kaotikoa da: etxeak, umeak ortozik zabor artean, trafikoa...

♦ **Zaborra hirian ezezik mendian ere asko ikusi duzue?**

Kilimanjaron harritu egin nintzen ikusitako zikinkeriarekin. Bide osoa paperez beteta zegoen eta gu jasotzen hasi ginen, baina ez jarraitzeko esan zigun gidariak. Hangoentzat zaborra ez da lehentasuna, baina turistek zikintzen dute. Ni ez naiz Everesteko oinarritzko kanpalekuan egon, espero dut noizbait joatea, baina esan didate beldurgarria dela zaborrari dagokionez. Espedizio honetan ere zabor asko ikusi dugu, Coca-Cola botila bat, esaterako. Oso deigarria da zaborrarena.

♦ **Gaitzak izan dituzu espedizioan. Horrek pentsatuzarazi dizu horrelako mendietara berriz joango al zaren edo ez?**

Itzuli orduko aitak esan zidan horrelako kontuak Alex Txikonentzat uzteko, baina niri berriz Himalayara joateko

gogoa geratu zait. Kilimanjarotik bueltan lagun batek esan zidan kontinente bakoitzean mendi batzuk egiteko. Esaterako, Elbrus mendia Errusian dago eta sekulako hotza egiten du, inguru militarra da, baina joateko ilusioa daukat. Baina oinak lurrean izan behar ditut, 6.500 m. hain gogorak izan badira, 8.000 gehiegizkoa izango da. Elbruserako gogoa ezetik Akonkaguara joateko asmoa ere badaukat eta Nepalen ere badira beste hainbat mendi begiz jota ditudanak.

♦ Zein sentipen utzi dizkizu Mera Peakerako espedizioak ?

Nik neukan sentsazioa baino gehiago izan da. Larunbatean goizaldean iritsi eta igandean Aizkorrira joan nintzen. Beharra neukan, niretzat hori da mendizaletasuna. Eta astelehenean ETBn hasi nintzen lanean eta hor ez dago aklimataziorik. Egunerokotasunera itzulitakoan, argazkiak ikusitakoan, hasi nintzen konturatzen egin dudana ez dela ohiko gauza bat.


♦ Itzuliko zarela esan duzu, baina pentsatu al duzu zein izango den zure hurrengo espedizioa?

Alpeetako gidariari galdetu nion zein zen Elbrusera joateko urte sasoirik onena, gainontzeko mendi egitasmoak antolatzeko. Bi egun hemen pasatu orduko burua mendi gailurretara eta beste leku batzuetara joaten zait. Datorren urtean, beharbada, Himalayara bertara joango gara edo Perura, Andeetara. Dena dela, orain lehen helburua Karakateko Igoera da. Txisparrigabe nago, baina saiatuko naiz Himalayako azken globuluak estutzen. Nire ilusioa da nire ilobak han goian ikustea. Pentsatu dut aurten lehen aldiz erlojurik gabe joango naizela berdin baitzait zein denbora egin. Konfinamendutik, operazioaren ondoren hiru bertikal egin ditut dortsalari beldurra kentzeko eta hiru horietan baino ez dut erlojua ipini, Himalayara eta Alpeetara ez dut eraman. Hala ere, nire mailan baina oso lehiakorra naiz eta Karakatera joaten naizenean erlojurik eraman ez arren, beti begiratzen diot gure dendako erlojuari iristen naizenean. Gozatzeri joango naiz, eta amaituz gero pozik.



Goian, Ainhua, zubi tibetarra pasatzeko prest, trekingaren hasieran, Luklatik gertu. Behean, taldekoei lagundu eta jatekoa prestatu zien familiako hainbat kide.





Ramos Campo Tricio

2021eko azaroaren 12an hil zen, 90 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



M. Angeles Iriondo Kalzakorta

2021eko azaroaren 17an hil zen, 73 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.

**Izan zarenagatik eta erakutsi duzunagatik,
ez zaitugu inoiz ahaztuko.**



Rosario Beloki Aizpitarte

*Rosario elgoibartar peto eta zintzoa,
lagunen laguna eta nortasun handi zein apalekoa.
Udazkeneko gau goibel eta euritsuan isil-isilik eman zuen
bere azken arnasa berea zuen ohiko eran, tinko,
ziur eta zalantzarik gabe jakinaren gainean betiko atsedena hartuko zuela.
Gure bihotzetan eta Elgoibarko kaleetan barna aurkituko dugu
bere begi disdiratsu eta irrifarre sotilean aurrera eginez.*

2021eko azaroaren 14an
hil zen, 91 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen
ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara
agertu izana ere.



Etxekoak



Espainiako Hard Enduro Txapelketako proba bat jokatuko dute asteburuan Idotorben



Urnobitza Kirol Klubak antolatuta, Espainiako Hard Enduro txapelketarako proba puntuagarria jokatuko dute, asteburu honetan, Elgoibarren. Muturreko Enduro kategoriako txapelketa izango da, Hard Enduro edo Enduro gogorra, hain zuzen ere. Lleidan, Errioxan eta Guadajajaran jokatu dituzten proben ostean, laugarren proba puntuagarria izango da Idotorben eta inguruetan jokatu dutena, txapelketako azken aurrekoa. Bi ordu eta erdian lehiatu beharko dira moto gidariak Urnobitzakoek prestatutako zazpi kilometroko zirkuito gogor eta teknikoan. 2019an ere jokatu zuten txapelketa honetarako proba bat. 66 moto gidarik hartu zuten parte, eta muturreko enduroan ohikoa den moduan, gutxik lortu zuten proba bukatzea, 24 gidarik, hain justu ere. Muturreko Enduroan munduko txapelduna den Mario Roman madrildarra gailendu zen, erakustaldia emanez. Gaur, hilak 19, egiazpapenak egingo dituzte, 18:00etan. Zapatuan entrenamendu libreak eta sailkapena egingo dituzte, eta domekan 9:00etan hasiko dira lehiak. Antolatzaileek hiru aparkaleku prestatu dituzte ikusleentzat.

Mora eta Mendazona judokak Espainiako txapelketarako sailkatuta

Azken txapelketetan ibilbide paraleloa daramate Egoitz Mora eta David Mendazona judoka elgoibartarrek. Biak gailendu ziren Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketetan, bakoitza bere pisu kategorian, eta Espainiako Ipar Sektorako txapelketan ere postu bera lortu dute. Azaroaren 14an Iruñean jokatu zuten lehiaketan txapeldunorde izan ziren: 60 kiloz azpikoetan Mendazona eta 100 kiloz gorakoetan Mora. Biek lortu dute Espainiako Txapelketako azken faserako sailkatzea. Abenduaren 6an izango da finala, oraindik zehazteke dagoen lekuan.



Karakateko Igoera jokatuko dute bihar



Urtebeteko geldialdiaren ondoren, bihar, hilak 20, jokatuko dute Karakateko Igoera. Morkaikotik jakitera eman dutenez, pandemia aurreko Karakateko Igoerak modukoa izango da aurtengoa, baina edukiko ditu ñabardura batzuk. Hasteko, irteeran musukoa jantzita eduki beharko dute parte hartzaileek. Kalegoen plazako frontoiko frontisetik irteten dira saltakariak, 11:00etan puntuan, eta Karakateko zubia pasa artean jantzita eraman beharko dute musukoa. Era berean, antolatzaileek 125 lagunetan jarri dute parte hartzaileen muga. Duela bi urte, 2019an, jokatu zen azken ekitaldia. Javier Goitia gemikarra eta Sonia Lopez ermuarra izan ziren azkarrenak giro petral eta ezatseginarekin jokatu zen igoeran. Probako errekorra Iban Muruak ezarri zuen 2017an: 26 minutu eta 17 segundo.

Julen Urruzola, Espainiako selekzioarekin

Espainiako Eskubaloia Federazioak Bidasoa Irun taldeko lau jokalaririk deitu zituen Azuqueca de Henaresen (Guadajajara, Espainia), azaro hasieran egin zuten zazpi eguneko kontzentrazioan parte hartzeko, eta horien artean zen



Julen Urruzola Pagazartundua (Elgoibar, 2002). Jubenil mailako Espainiako selekzioak brontzezko domina irabazi du aurtun Kroazian jokatu zuten Europako txapelketan, eta orain, junior belaunaldi berriaren estreinuan, 2002-2003 urteetan jaiotako hamazazpi jokalaririk deitu ditu Rodrigo Reñones hautatzaileak, etapa berri bati hasiera emateko helburuarekin.

Sherpa.ai Aizkolari Txapelketa Nagusiaren finalean lehiatuko da Uxue Ansorregi Bilbon

Bilboko Bilbao Arena Miribillan jokatuko dute domekan, azaroak 21, 2021eko Sherpa.ai Aizkolari Txapelketa Nagusiaren finala. Momentuko aizkolari onentsuenak lehiatuko dira, sei gizonezko eta hiru emakumezko; eta horien artean izango da Uxue Ansorregi mendararra. Ansorregik joan den urriaren 30ean Zestoan jokatu zuten sailkatze proban lortu zuen finalerako txartela, Karmele Gisasolarekin batera. Maika Ariztegik, finalean arituko den hirugarren aizkolaria, urriaren 17an Araian jokatu zuten kanporaketan lortu zuen sailkatzea. Ansorregik nabarmendu du kanporaketa horietan sei se-



gundoko tartea egon zela finalerako sailkatu diren hiru aizkolarien artean. "Faborito argirik ez dagoela esan nahi du horrek, gauzak estu egongo direla, printzipioz. Hori bai, Miribillako finalean lan handiagoari aurre egin beharko diogu, eta ez daukagu erreferentziarik horietan nor moldatuko den hobeto", esan du herri kirolari mendararrak. Finalean 36 ontzako bi enbor eta 45 ontzako beste bi moztu beharko dituzte. Egungo aizkolari onenekin batera lehiari aritzeko aukera izatea handia dela dio Ansorregik, eta are gehiago jokatu den eszenatokian. "Sherpak antolatutako gizonezkoen lehen txapelketa ere Bilbao Arenan jokatu zuten eta bigarren hau ere bertan egitea erabaki dute. Txapelketa ikusgarria izango da, oso ondo antolatuta".

Trontzan txapeldun

Bestalde, Bizkaiko Trontza Misto Txapelketa jokatu zuten aurreko domekan, azaroaren 14an, Gamiz-Fikako pilotalekuan, eta Uxue Ansorregik eta Mikel Arregik osatutako bikoteak irabazi zuten txapelketa. Hala, txapelketa honetan lortzen duen hirugarren garaipena eskuratu du herri kirolari mendararrak. Bost bikote aritu ziren lehiari eta hamar ebaki eman behar zizkieten 45 kanaerdiko enborrari. Ansorregi eta Mikel Agirre izan ziren lanak bukatzen azkarrenak. Lau minutu eta 46 segundoan osatu zituzten lanak. Bederatzi segundo gehiago behar izan zituzten bigarren egin zuten Iraide Gezuragak eta Salva Erleagak (4:55).



Segundo bakarreko aldeaz irabazi du Jon Larrañagak Euskal Herriko Lokotx Biltze Txapelketa



Gizonezkoen Euskal Herriko Lokotx Biltze Txapelketa jokatu zuten azaroaren 13an, Laukizen, Bizkaian. Sei herri kirolari aritu ziren lehiari eta Jon Larrañaga mendararra gailendu zen. Larrañagak segundo bakarreko aldeaz irabazi zuen bigarren egin zuten Asier Gamio nafarrari. Mendararrak 6 minutu eta 27 segundo behar izan zituen bata bestearengandik 1,25 metrotara eta bi lerrotan jarritako 50 lokotx batzeko, eta 6 minutu eta 28 segundo erabili zituen Asier Gamio berroetarrek. Aritz Martin bizkaitarrak osatu zuen podiuma (6.43). Patrik Saitua bizkaitarra laugarren izan zen (6.44), Aritz Iturrigarria arabarra bosgarren (6.48) eta Guillermo Lopez arabarra seigarren (6.57).

Aitziber Olaizolak irabazi du Euskal Herriko Hiru Txirlo Bola Joko Txapelketa, eta historia egin du



Historian lehen aldiz emakume bat nagusitu da Euskal Herriko Hiru Txirlo Bola Joko Txapelketan: Aitziber Olaizola bolari elgoibartarra. Lau jardunalditan jokatu dute aurtengo txapelketa, eta Azpeitian jokatu zuten azken tiraldia, Garmendipeko bolatokian, azaroaren 13an. Guztira 73 bolari aritu ziren lehian, 21 metroko distantziara zituzten hiru txirloak nork gehiagotan jo eta bota. Jardunaldi guztietako puntuak kontuan hartuta, San Migel taldeko Aitziber Olaizola elgoibartarra gailendu da aurtengo txapelketan; guztira, 21 txirlo botata. Gainera, bigarren jardunaldia ere berak irabazi zuen. Datu aipagarri bat: historian estreinakoz irabazi du txapelketa emakume batek. Elgoibarko bolariak neurria hartua diote txapelketa honi, azken edizioan -2019an jokatu zen- Xabier Loiolak jantzi zuen txapela, eta 2018koan, Angel Ibarluzeak. 2017koan Asola Berri elkarteko Bittor Astigarraga eibartarra gailendu zen eta 2016koan Jabier Osoro izan zen irabazlea. Hortaz, azken bost txapelketatik lau irabazi dituzte bolari elgoibartarrek.

Urbiziko kideek hainbat sari eskuratu dituzte Gipuzkoako eta Euskadiko ur azpiko argazki txapelketetan

Urpeko Irudiaren Eguna izan zen azaroaren 6a, Gipuzkoako eta Euskadiko Urpeko Jardueren Federazioko Irudi Sailak antolatuta. Iazko eta aurtengo hainbat argazki txapelketako sariak banatzeko baliatu zuten eguna eta Urbiziko kideak ez ziren esku hutsik itzuli Euskadiko Urpeko Jardueren Federazioak Reale Arena estadioaren behekaldean duen egoitzan egin zuten sari banaketatik. Hala, Bego Larraurik (argazkilariak) eta Ion Larrañagak (laguntzailea) Euskadiko ur azpiko argazki txapelketako (Vafosub 2021) sailkapen nagusiko hirugarren postua eta brontzezko domina lortu dituzte eta lehen postua 2021eko Gipuzkoako Ligan (Reflex kategorian). Era berean, Jose Luis Aperribaik (argazkilaria) eta Joseba Narbaizak (laguntzailea) hirugarren postua eskuratu dute 2021eko Gipuzkoako Ligan, kamera konpaktuen sailean.



Sanloren bazkide txartelak jasotzeko prest daude

Sanlo eskubaloi taldetik jakinarazi dute, bazkide-txartelak jasotzeko prest daudela. Olaizaga kiroldegian jaso ahal izango dira, Sanlok bertan duen bulegoan, astelehenetan 19:00etatik 20:00etara; eta, eguenetan 18:00etatik 18:30era. Sanlotik ohartarazi dute herriko saltokiek eskaintzen dituzten deskontuez baliatu ahal izateko, beharrezkoa dela 2021-2022 denboraldiko txartela izatea.

Gabonetan kerixak!: Zerbait ondo estimatuta dagoenean esan ohi da, adieraziz ezinezkoa ere egingo lukeela batek, egindako mesedearen ordainetan.

Astelehenean aurkeztuko dute 'Haurren aurrean, helduok heldu' ekimena

Haurren aurrean, helduok heldu ekimena jarri du abian Euskaltzaleon Topaguneak helduen eredugarritasuna sustatu eta hizkuntza praktiken inguruan hausnartzeko. 0 eta 12 urte arteko umeekin harreman zuzena duten helduen arteko hizkuntza-praktikak aldatu eta euskara gehiago erabil dezaten prestatu dute aktibazio egitasmoa. Euskal Herriko 70 herritan egingo dute ariketa arazoaren 22tik abenduaren 5era bitartean. Ariketa helduentzat da eta helduok umeekin batera dauden gune eta uneetan egingo dute: jolas-parkeetan, tabernetako terrazetan, ikastetxeen atarietan, etxeetan...

Elgoibarren azaroaren 22an, astelehenean, egingo dute aurkezpen ekitaldia 18:00etan, Maalako parkean. Elgoibarko Izarra, Elgoibarko Udala, Elgoibar Ikastola, Herri Eskola, Elgoibarko Haurreskola eta Ludoteka dira Elgoibarko eragileak eta aurkezpena gonbidatu dituzte 0 eta 12 urte arteko umeak eta adin horretakoekin harreman zuzena daukaten guraso, senitarteko eta zaintzaileak.

Aurkezpen ekitaldian ariketako identifikagarriak salduko dituzte: lepokoak (euro bat), ariketa egiten dihardutenean jartzeko eta guraso eta seme-alabak etxean elkarrekin egoten diren guneren batean ipintzeko kartelak (bi euro).

Jairo Berbelen 'Miscere' lana saritu dute Eibarko Film Laburren jaialdian



Asier Errasti Eibarko Film Laburren Jaialdiko Javier Aguirresarobe sariak banatu zituzten joan den zapatuan. Plano Corto elkarteak Udalaren laguntzarekin antolatutako jaialdian guztira 52 lanek hartu dute parte. Jairo Berbel elgoibartarrak Juanma Cano eibartarrarekin batera sortutako *Miscere* film laburrak eibartarrek aurkeztutako lanen artean onena izan zela erabaki zuen epaimahaiak eta saria jaso zuen ekitaldian. Migratzaileek bizi duten zorigaitzarekin eta minarekin enpatia sentiitzea da lan honen helburua.

Cobra taldearen kontzertua, gaur, Kultur Etxeko sotoan

Sinuöse taldeak antolatuta Cobra taldearen kontzertua izango da gaur, 23:00etan, Kultur Etxeko sotoan. Cobra taldea lau lagunek osatzen dute: Haritz Lete (ahotsa), Josu Luengo (gitarra), David Gonzalez (baxua) eta Ekain Elorza (bateria). Rock/metal talde honen azken lana, *laugarrena, Fyre* da eta Riff itsaskorrez betetako hamar abesti jaso dituzte bertan. Disko aldakor honetako abestiak eskainiko dituzte kontzertuan talde bezala bere hazkuntza eta bilakaera agerian utziz.

Santa Zezilia dela-eta musika ekitaldiak datozen bi asteetan

Santa Zezilia eguna da azaroaren 22an eta musikaren zaindaria izanik makina bat musika emanaldi izango dira astean barrena. Astelehenean, 10:00etatik 12:30era bitartean Elgoibar Ikastolako ikasleek musika saioa eskainiko dute Maalako parkean, mailaka banatuta. Arratsaldean, berriz, Inazio Bereziartua Musika Eskolako txaranga eta dultzaineroak arituko dira Elgoibarko kaleetan 18:00etatik aurrera. Martitzenean, berriz, trikitilariak egingo dute kalejira 19:30ean.

Euskararen Eguneko esaldi lehiaketa gazteentzat

Abenduaren 3an Euskararen Eguna dela-eta, esaldi lehiaketa jarri du abian Elgoibarko Izarrak, Udalaren laguntzarekin. Euskara foku duen eta euskal abesti batetik aterata dagoen esaldia aurkeztu beharko da taldeka (DBH edo Batxilergoko ikasleak). Talde irabazleak graffitigile profesional baten laguntzaz, esaldia Elgoibarko horma batean idazteko aukera izango du 12 kide hautatuta. Esaldia abenduaren 1a baino lehen bidali behar da atxutxiamaika@elgoibarkoizarra.eus helbidera.

► GEMMA MONREAL

MARGOLARIA

Gemma Monreal margolari elgoibartarrak azaroaren 11 n jarri zitu ikusgai bere lanak Aita Agirre Kultur Kafean eta erakusketa hilaren 21era bitartean izango du ikusgai. Gerturatzan denak lorak, eraikinak zein paisajeak ikusi ahal izango ditu bere margolanetan eta baita erakusketarako propio prestatu duen beste lan bat ere

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

“Gauza mingarrien aurka egiteko modua da burkaren konposizioa”

◆ Akrilikoak eta akuarelak jarri dituzu ikusgai. Ez da zure ohiko teknika, ezta?

Elgoibartarrek ez dute ikusi nik egindako akuarela eta akriliko margoen erakusketarik. Gogoia sortu zitzaidan berriz akuarela eta akrilikoekin hasteko eta bide batez nire ikasleei teknika hauei buruzko ikastaro bat emateko. Maiatzean hasi nintzen eta ikasleekin eskolak amaitu nituenean gogo handiz eta inspirazioz jarraitu nuen, behin koadro bat egun batean margotzeraino ere ailegatu nintzen. Zenbat eta gehiago margotu poztasuna ere handiagoa zen, eta ez dakit ikusleei zer irudituko zaien baina ni oso gustura nengoenez erakusketa jartzea erabaki nuen eta herritarrak ikustera gonbidatu nahi ditut.

◆ Zenbat lan ikusi ahal izango ditugu?

23 margo lan egin ditut, baina azkenean 22 jarri ditut erakusketan. Bestalde, erakusketan pentsatuz, gau batean, film bat ikusten ari nintzela hura utzi eta marrazten hasi nintzen eta ideia bat bururatu zitzaidan. Lan hori ere erakusketan ikusi ahal izango dute gerturatzan direnek.

◆ Eta, zer da ba artelan hori?

Burka bat egin dut, guztia birziklatutako materialekin: pinturarako oinarritzko asto bat, katilu handi bat, goma-aparra, soka eta ez labaintzeko sarea. Bidaia asko egindakoa naiz, gauza asko ikusi ditut eta pentsatu nuen nik hainbeste gauzarekin gozatu eta zergatik hainbeste emakumek ezin dituzten nik bezala ikusi; edo



zergatik margotzen edo margolanak ikusten ezin duten nik beste gozatu. Hori pentsatuz, itsasoa irudikatzen duen aspaldiko lan bat hartu nuen eta zirriborro bat egin nuen. Hortaz, erakusketan ikus daiteke itsas ertzeko margolan baten ondoan burka. Konposizioari *Quiero ver el mar* izena jarri diot, hain zuzen ere.

◆ Erakusketa guztia zure margolanekin egin duzu orain arte herritarren aurrean erakutsi gabeak zenituelako, baina lan honek esanahi bereziren bat dauka?

Hau egin nahi izan dut ikus dezagun zein gogorra den emakume horien bizimodua. Egunero bizi dituzten gauzak hain beldurgarriak izanik gertukoak ere argi ezin ditzakete ikusi sare horren atzean daudelako.

Batik bat emakume naizen aldetik, niri benetan ikaragarriak, mingarriak iruditzen zaizkidan gauzen aurka egiteko modua da. Burka erabiltzen duten emakume horien azalean jartzen saiatu arren ezin dut, ni libre bainaiz nire begiek nahi dutena begiratzeko eta baita nahi dudana egiteko ere. Apurtzailea den zerbait egiten saiatu naiz, burka horrek islatzen duen min eta izu horren aurka jotzeko amorrua ere sortzen didalako. Gizonezkoekin erosketak egitera irteten direnean ere ezin dute oinez doazen bide hori ere ikusi sare atzetik eta hori izan da konposizio horri eman nahi izan diodan sinbolismoa.

◆ Beste lanen bat baduzu esku artean?

Orain margotzen jarraitzen dut, marraztu edo margotu gabe ezingo nintzateke bizi, beharra da niretzat. Beti ideia berriak daukat buruan. Gabonetako erakusleihu lehiaketarako ere eman dut izena eta horrekin dihardut orain. Burua beti izan behar dut artearekin lotutako zerbaitekin beteta.

Jostailuen Astea antolatu dute azaroaren 24tik 27rako

Eguberriei begira, jostailu didaktikoak aurkezteko eta haiei buruzko azalpenak emateko Jostailu Astea antolatu dute Atxutxiamaikak, Ludotekak eta Gaztelekuak, Elgoibarko Udalaren laguntzarekin. Azaroaren 24tik 27ra izango da, eta adinaren arabera banatuko dituzte jostailuak: 0-8 urtera



artekoentzako jostailuak Kultur Etxeko erakusketa gelan jarriko dituzte ikusgai, eta 9 urtetik aurrerakoentzakoak, Aita Agirre kulturgunean. Aurten, bestalde, familia txokoak eta jolas ekintzak ere antolatu dituzte. Familia txokoak Kultur Etxean izango dira, eta parte hartzeko izena eman behar da elgoibarkoizarra.eus webgunean. Aita Agirre kulturgunean, aldiz, jolastailuekin jolatu ahal izango da egitarauan jarritako ordutegian. Jolasetan parte hartzeko momentuan bertan eman beharko da izena. Asteazkenean zehar 17:00etatik 19:30era egongo da zabalik erakusketa, eta zapatuan, goizez, 11:30etik 14:00etara.

Familia ginkana antolatu dute azaroaren 27rako

Haurren aurrean, helduok heldu egitasmoaren barruan, familia ginkana antolatu dute Elgoibarko Izarrak, Elgoibarko Udalak, Elgoibar Ikastolak, Elgoibarko Herri Eskolak, Elgoibarko Haurreskolak eta Elgoibarko Ludotekak. Azaroaren 27an izango da, 17:00etan. 20 familiak hartuko dute parte, lau familiako bost taldetan banatuta, eta talde bakoitzak bost proba gainditu beharko ditu. Umeak, umeen gurasoak, familiak, familia arteko harreman-jolasa, eta euskaraz ondo pasatzeko gogoia dira ginkana honen osagaiak. Interesatuek www.elgoibarkoizarra.eus webgunean eman behar dute izena, azaroaren 24rako. Informazio gehiagorako 943 741 626 telefonora deitu daiteke.

'Betikoa. Gertukoa. Eskatu euskaraz, eskaini euskaraz' kanpaina abiatu dute herriko 26 establezimendutan

Elgoibarko Udalak eta Elgoibarko Izarrak, Eusko Jaurlaritzak iaz zabalduko bi deari jarraituz, *Betikoa. Gertukoa. Eskatu euskaraz, eskaini euskaraz* kanpaina jarri dute martxan, herriko merkataritzan euskararen erabilera handitzeko. Kanpainak, euskara eta bertako merkataritzak berezkoak dituen bi kontzeptu lotzen ditu: hurbiltasuna eta konfiantza. Kanpainaren lelo orokorra salerosketetan bezero eta saltzaileen artean ematen den harremanarekin lotu da, eta helburu nagusia da herritarrek eguneroko erosketetan euskara erabil dezaten animatzea. Horregatik, bereziki, lehen hitza euskaraz egiteko gai diren kontsumitzaileei zuzenduta dago. Elgoibarren 26 establezimenduk eman dute izena.

Anne Etchegoyenen kontzertua gaur zortzi, Herriko Antzokian

Anne Etchegoyenek kontzertua emango du datorren barikuan Herriko Antzokian. Donapaleuko (Nafarroa Beherea) abeslari eta kantautorea da Etchegoyen. Zortzi urterekin hasi zen abesten bere amak zuzentzen zuen ume abesbatzan, eta gerora, Baionako kontserbatorioan egin zituen musika ikasketak. Euskaraz, frantsesez eta gaztelaniaz kantatzen du. 2020an kaleratu zuen *Emazte* izeneko diskoa, eta horko kantak eta kanta zaharragoak eskainiko ditu Herriko Antzokian. Sarrerak salgai daude herrikoantzokia.eus atarian.

'Konpromisoa' antzezlanaren bihar, Mendaron


Joseba Apaolaza, Ramon Agirre eta Zuhaitz Gurrutxaga igoko dira bihar San Agustin kulturguneko oholtzara, *Konpromisoa* antzezlanaren aurkeztera. Tomas eta German aspaldiko lagunak dira. Tomas egile kaskar bat da, eta German, berriz, lanbidean nabarmentzerik lortu ez duen aktorea. Germanek arazo ekonomikoak ditu, eta nola edo hala bere apartamentua saldu nahi du. Hitzordua jarri du erosle izan daitekeen batekin, eta Tomas lagunari etortzeko eskatu dio, hala moduzko idazlea izanagatik haren aurpegiak konfiantza ematen duelako. 19:00etan izango da emanaldia. Sarrerak aurrez eskuratu behar dira Morroskilon edo udaletxean, 3 euroko prezioan.



▶ PAULA KASARES

FILOLOGOA ETA ANTROPOLOGOA

Azaroaren 9an eman zuen *Haurren aurrean, helduok heldu* hitzaldia Paula Kasaresek (Iruñea, 1969). 22 lagun inguru bildu ziren Aita Agirre kulturguneko areto nagusian, 0 eta 12 urteko umeen amak, gehientsuenak. Paula Euskal Filologian eta Antropologian gradu-duna da, eta Soziolinguistikako doktorea. Haurren hizkuntza soziazioaren eta familien hizkuntza politikaren arloetan ikertzailea ere bada. *Haurren aurrean, helduok heldu* ekimenaren zergatiaz eta garrantziaz jabetzeko hitzaldia eskaini zuen Paulak, eta jarraian duzue berak esandakoaren laburpena.



“Gurasoak ez dira haien umeen hizkuntza erreferente bakarrak, zorionez eta zoritxarrez”

✓ Zertarako *Haurren aurrean, helduok heldu*?

Helduei haurren aurrean euskaraz egiteak duen garrantziaz jabeaztea da helburu nagusia, eta, bidez batez, umeen bueltan aritzen diren helduen arteko euskararen erabilera ere areagotu nahi da.

✓ Umeak euskaraz entzun nahi baditugu...

Euskara indarberritu nahi bada, ez dago seinale hoberik umeak euskaraz entzutea baino. Haurrak euskaraz entzutea parkeetan, plaza eta kaleetan..., lagun artean eta jolasean dihardutenean. Baina umeak euskaraz entzun nahi baditugu, helduak kontzientziatu behar ditugu haien hizkuntza-portaerak haurrentzat duen eredugarritasunaz.

✓ Bi urteko umeak ere badaki.

Hizkuntza baten ikasketa prozesuan, hizkuntza ez ezik (kodea), hizkuntza hori erabiltzeko arau sozialak ere ikasi eta barneratzen ditu umeak. Gure kasuan, ikasten dute euskara noiz, norekin eta nola erabili behar den. Bi urteko umeak dagoeneko barneratzen ditu arau sozial horiek. Bestalde, umeek haien errealitate soziolinguistikoa *mapeatzen* dute: inguruko helduek beren artean nola egiten duten ikusten dute, zer kontsumo kultural egiten duten, eta badakite noiz egin behar den euskaraz eta noiz erdaraz. Badakite, baita ere, gurean dagoen hizkuntzetako bat (gaztelania/frantsesa) denek dakitela, bestea (euskara) batzuk baino ez dakiten bitartean. Soziolinguistikako inolako hitzaldirik entzun gabe konturatzen dira euskara hizkuntza gutxitua dela.

✓ Euskararen erabilera normala.

Etorkizunean euskararen erabilera normala, bat-batekoa eta berezkoa duten umeak nahi baditugu, umeek hizkuntza portaera normalak ikusi eta ikasi behar dituzte. Eta normaltasunaren lehen araua euskaldunek euskaldunekin euskaraz egiten da.

Ume batek, euskarazko hiztun normala bihurtzeko, euskaraz aditzeko eta aritzeko aukera nahikoak eta askotarikoak behar ditu. Aukera nahikoak, kantitateari dagokionez, eta askotarikoak, esparruei dagokienez. Ez da nahikoa etxean edo ikastetxean bakarrik entzuten badu; ez da nahikoa ikastetxean bakarrik erabiltzen badu.

✓ Erreferenteak ez daude etxean bakarrik.

Paularen esanetan, gurasoak ez dira haien umeen hizkuntza erreferente bakarrak, zorionez eta zoritxarrez. Zorionez, etxean euskara entzuten eta erabiltzen ez duen ume bat euskaldundu daitekeelako. Eta zoritxarrez, familia euskaldun eta euskaltzale batean hazitako ume batek ez duelako derrigorrean euskaraz egingo.

✓ Guraso tipologiak:

Guraso biak euskaldunak direnean argi du lehentasuna euskarak izan behar duela. Bietariko gurasoak dituzten familien kasuan, berriz, bakoitzak berean egin behar die umei, baina modu koherentean (euskaraz egiten duenak beti egin behar die euskaraz). Eta, azkenik, euskaraz ez dakiten gurasoen kasuan, motibazioa eta euskara entzuteko eta erabiltzeko aukera eskaini ditzakete.

✓ Hizkuntza ohiturak alda daitezke, nahi bada.

Paulak aitortu zuen hizkuntza ohiturak aldatzea ez dela batere erraza. Baina, nahi bada, saiatur gero, alda daitezke. Horretarako estrategia batzuk ere eman zituen:

- Norberaren hizkuntza-ohituren azterketa bat egitea izan daiteke lehen urratsa. Euskaraz dakitenekin euskaraz egiten al du? Zergatik eskatzen diot ogia gaztelaniaz okinari euskaraz baldin badaki?
- Urrats txikiak ematen has gaitezke. Harreman sakonegia ez dugun horrekin hasi. Pixkanaka, errazenetik hasita, eta esan ingurukoei zer egin eta lortu nahi dugun.

LANA.....
Eskaerak

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan.
☎ 641 322 473

Adinekoak zaintzeko edo hoteletan lan egiteko prest nago. Bietan esperientzia handia daukat. Orduka edo etxeko langile moduan lan egiteko prest nago.
☎ 642 846 905

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanetarako prest nago, eta baita sukaldari laguntzaile aritzeko ere. Esperientzia handia daukat.
☎ 632 237 151

Asteburu eta jai egunetan adinekoak zaintzeko prest nago.
☎ 625 910 116

Goizetan etxeak garbitzeko prest nago. Esperientzia daukat.
☎ 635 490 633

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago. Orduka eta asteburuetan.
☎ 648 039 187

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago, eta baita etxeko lanak egiteko ere. Etxeko langile moduan
☎ 643 411 292

Adinekoak eta mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko prest nago. Esperientzia eta beharrezkoak diren tituluak ditut. Etxeko langile moduan edo orduka aritzeko prest. ☎ 631 342 098

Mendekotasun egoeran dauden pertsonak zainduko nituzke, goizez. Arreta soziosanitario tituluua daukat. Esperientzia.
☎ 653 160 233

Lan bila nabil. 11:00etatik aurrera egingo nuke lan. Zaintza lanetan esperientzia handia daukat. Arreta soziosanitarioko tituluua daukat. Euskalduna naiz.
☎ 688 725 715

LH eta DBHko klase partikularrak emateko prest nago. Gizarte Lana, Gizarte Hezikuntza eta Psikologiako graduak ikasten ari naiz. Euskalduna eta gaztea naiz.
☎ 649 446 529

Mutila lanerako prest. Adinekoak zaintzeko edo igeltsero, pintore zein artz laguntzaile aritzeko prest.
☎ 642 196 564

Eskaerak

Elgoibarko ileapaindegi baterako laguntzailea behar da (1. mailako ofiziala). Lanean berehala hasteko. Egun osoko lan jarduna eskaintzen da.
☎ 943 246 225

LOKALAK.....

Gazteentzako lokala alokatzen dugu, San Roke auzoan. 133 metro koadroko lokala da, irisgarritasun onekoa, larrialdietarako irteeraduna eta Udal arautegia betetzen duena. ☎ 679 332 407

GARAJEAK.....

Garaje itxia salgai edo alokairuan, San Roken, kiroldegi aurrean.
☎ 679 851 185

BESTELAKOAK.....

Lepokoa galdu nuen azaroaren 12an Elgoibarren. Norbaitek topatu badu deitu dezala nire telefono zenbakira. Eskertuko diot. ☎ 680 707 639



  <p>ROSA Ma PINTADO</p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Gure garaje komunitatean bada ibilgailu bat normalean gune komunetan aparkatu ohi dutena. Hainbat aldiz, enpresa pribatu bateko garabia ekartzeko deitu dugu, baina ezezkoa ematen dio ibilgaiua gune komunetik kentzeari edo lekualdatzeari, baldin eta jabea bertan ez badago. Nola konpondu dezakegu arazo hau?</p> <p>Higiezinen jabeek edo maizterrek maiztasunez inbaditzen badute garaje plazen jabetza eskubidea edo ibilgailuak garajeko gune komunetan aparkatzen badituzte, Prozedura Zibilaren Legearen arabera epai-akzio bat bultzatu ahal izango da. Horren helburua izango da demandatuaren aurkako sententzia bat lortzea gune komunetan zein beste jabeakideen aparkalekuetan ibilgailua utzi ez dezan. Kondenatuak epaia bete ezean derrigorrez betearaziko zaio. Gainera, eragindako kalte-galerak ordaindu beharko ditu. Bestalde, bere jokabidea errepi-katuz gero, epai-agintearen desobediencia delitupean eroriko litzateke.</p> <p>Aholkua: Jabe komunitateak Jabetza Horizontalaren Legearen arabera neurriak hartu ahal izango ditu. Beraz, presidentek, administratzailearen bitartez, jabe edo maizterrari eskatu beharko dio jokabide desatsegin hori uzteko. Horrela egiten ez badu batzar batean adostuko dute ekintza judicialak hastea bere jarrera bertan behera laga dezan.</p> <p>ASESORIA GO/R AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
--	---



Argazkiak eguztzen eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo 📞 688 634 044 bidalita.



Zorionak, **Unax**, txapeldun! Astelehenean 9 urte beteko dituzu! Muxu handi bat, familia guztiaren partez!



Zorionak, **Inge**, bi urteko beteko dituzulako! Eta, amamak, urte batzuk gehiago. Ondo pasatu zuen eguna.



Zorionak, **Unax!** 10 belarri tira-kada, eta muxu bat lagunena eta etxekoena partez.



Zorionak, **po-txolo!** Muxu handi-handi bat etxeko guztien partez.



Ongi-etorri, **Oier**, hilaren 6an jai zinelako. Muxu potolo bat familiakoena, eta bereziki, anaia Enekoren partez. Txintxo portatu!



Zorionak, **Peru** eta **Elene!** Zuen urtebetetzia danok elkarrekin ospatuko dogu. Patxo handi bana, etxeko danon partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3,50€. Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

..... BARREneko harpidedunentzako oharra

Buzoiko **B pegatina** falta bazaizu edo hondatuta baduzu, **BARREneko bulegora** etorri eta berria emango dizugu

Barreneko banaketa sistema errazteko behar-beharrezkoa dugu zuen buzoiak pegatinarekin markatzea.

Mesedez, ez ezazue pegatina kendu buzoitik. Gure banatzaileek eskertuko dute.



19 BARIKUA

16:30 Odol ateratzeak, Mendaron. Ikastolan.

19:00 Hitzaldia: 'Emakumeon ahalduntzea ala indarkeriaren normalizazioa?' Itaia Emakumeon Antolakunde Sozialistak antolatuta, Mendaroko Gaztetxean.

23:00 Kontzertua: Cobra. Sinuösek antolatuta, Kultur Etxeko sotoan. Sarrera 5 euro.

20 ZAPATUA

09:00 Enduro txapelketa. Entrenamendu saioa. Idortoben.

11:00 Karakteko Igoera. Kalegoen plazaatik.

19:00 Antzerkia. 'Konpromisoa'. Mendaroko San Agustin kulturgunean.

21 DOMEKA

09:00 Enduro txapelketa. Idortoben.

16:30 Txotxongiloak: 'Argitxo iratxo'. Taupada antzerki taldeak taularatuko du, Herriko Antzokian.

22 ASTELEHENA

10:00 Ikastolako ikasleen Santa Zezilia Eguneko emanaldia, Maalako parkean.

18:00 'Haurren aurrean, helduok heldu' egitasmoaren aurkezpena. Maalako parkean. Ondoren, Musika Eskolako txarangaren kalejira, Kalegoen plazaraino.

23 MARTITZENA

19:00 Mahaingurua: 'Bakearen sukaldeak', Arnaldo Otegi, Jesus Eiguren eta Pello Rubiorekin. Bizikidetza jardunaldien barruan, Musika Eskolako auditoriumean.

19:30 Musika Eskolako trikitilarien kalejira.

24 EGUAZTENA

17:00 Jostailu erakusketa. Hilaren 27ra arte egongo da zabalik, Aita Agirre kulturgunean eta Kultur Etxeko sotoan. Zapatuan goizez bakarrik, 11:30etik 14:00etara.

17:00 Epeletan literatura tailerra: Alaine Agirreren 'Kamisoi zuri zetazkoa' landuko dute, Jasone Osororekin. Go-tzon Garate Udal liburutegian.

25 EGUENA

17:00 Kontu kontalaria: 'Frankenstein berpiztuko balitz'. Ana Galarragarekin, LH3, LH4 eta LH5eko umeentzat. Izena eman behar da Udal liburutegian.

19:00 Elgoibarko Isiltasun Eskolaren hausnarketa saioa. Kultur Etxeko sotoan.

26 BARIKUA

16:30 Hitzaldia: 'Sintromaren kontrola etxetik'. Jubilatuen Biltokian.

20:30 Kontzertua: Anne Etchegoyen. Herriko Antzokian.

Zinea (Herriko Antzokian)



'Sin tiempo para morir'

19 barikua: 21:00

20 zapatua: 19:00 / 22:15

21 domeka: 19:00

22 astelehena: 21:00

'Sólo una vez'

(Ongarri zinekluba)

24 eguaztana: 21:00

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez: 09:00-22:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

19 BARIKUA	20 ZAPATUA	21 DOMEKA	22 ASTELEHENA	23 MARTITZENA	24 EGUAZTENA	25 EGUENA	26 BARIKUA
Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez Arriola	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez
Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean Arriola	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Yudego	Iluntzean Arriola	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego

* Fernandez:
Herriko Enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00
Arantzazu Izpizua, Ibarkurutze, 7 (Eibar)
943 201 912

AZAROAK 25: Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Eguna

Elgoibar

- ♦ **AZAROAK 19, BARIKUA**
19:00 Bideo foruma: 'Las elegidas'. Lilan.
19:00 Buru-berokiak sortzeko tailerra. Gaztetxean.
- ♦ **AZAROAK 20, ZAPATUA**
9:30 Emakumeentzako autodefentsa tailerra. Olaizaga kiroldegian.
- ♦ **AZAROAK 22, ASTELEHENA**
16:30 Tratu onen fotokola. Ludotekan. (HH5-LH1)
- ♦ **AZAROAK 23, ASTELEHENA**
16:30 Tratu onen fotokola. Ludotekan. (LH2-3)
- ♦ **AZAROAK 24, MARTITZENA**
17:30 Pankarta egitea eta azaroaren 25erakoprestaketa lanak. Afaria.
21:00 Filma: 'Sólo una vez'. Herriko Antzokian.
- ♦ **AZAROAK 25, EGUAZTENA**
19:00 Manifestazioa. Maalatik Kalegoen plazara.
19:15 Elkarretaratzerako hitzordua Gaztelekukoentzat, Aita Agirre plazan.
19:30 Elkarretaratzea Kalegoen plazan. Segidan, manifestazioa, indarkeria matxistaren kontagailua dagoen lekuraino.
 - ♦ **AZAROAK 29, ASTELEHENA**
18:00 Hausnarketa taldea. 'Bakarrik bai da bai'. Lilan.

JUBILATUEN ASTEA Azaroaren 22tik 28ra

22 ASTELEHENA

18:00 Txokolate jana. Izena eman behar da.

23 MARTITZENA

18:00 Txokolate jana. Izena eman behar da.

24 EGUAZTENA

17:00 Zinea: 'Abuelos'.

25 EGUENA

12:00 Urrezko ezteiak bete dituzten bikoteei omenaldia.

26 BARIKUA

18:00 Gabonetako otarren zozketa.

27 ZAPATUA

16:30 Kina berezia.

28 DOMEKA

11:30 Meza, San Bartolome parrokian.

Mendaro

- ♦ **AZAROAREN 18tik 21era**
Zapata biltzea eta margotzea, Ludotekan eta Gaztelekuan.
- ♦ **AZAROAK 20, ZAPATUA**
'Stop indarkeria' murala, Ludotekan.
- ♦ **AZAROAREN 24tik 26ra**
'Txanogorritxo eta hiru tximeletak' ipuinaren lanketa, Ludotekan
- ♦ **AZAROAK 23, MARTITZENA**
18:30 Hausnarketarako solasaldia: 'Ez nazazu hainbeste maite, maita nazazu hobeto'. Udalbatza aretoan. Izena eman behar da gizartekintza@mendaro.eus
- ♦ **AZAROAK 25, EGUENA**
Emakumeen gynkana eta zapata gorriak plazara. Ludotekan.
19:30 Kontzentrazioa. Herriko Enparantzan.
- ♦ **AZAROAREN 26tik 28ra**
Indarkeria matxistaren eskailera: 'Pepa eta Peperen istorioa'.
Equitriuala: 'Zenbat dakizu berdintasunaz?'. Eta laburmetraia: 'Majorité Oprimeé'.
- ♦ **AZAROAK 27, ZAPATUA**
19:00 Antzerkia: 'Evaren alabak'. San Agustin Kulturgunean.

ETA... DEBABARRENEAN ZER?

BLUES HOTSAK JAIALDIA. SORALUZEN. AZAROAREN 19TIK 28RA, SORALUZEKO ANTZOKIAN.

Errabal Kultura Elkarteak antolatuta, Blues Hotsak jaialdia egingo dute Soraluzen, eta AEB-tako, Britainia Handiko, Espainiako, Kataluniako eta Euskal Herriko musikariek joko dute.

- Azaroak 19, barikua: Watermelon Slim Blues Band.
- Azaroak 20, zapatua: Izo Fitzroy
- Azaroak 21, domeka: Eunice
- Azaroak 26, barikua: Niko Etxart & Hapa Hapa
- Azaroak 27, zapatua: Koko-jean & The Tonics

▶ Elgoibarko eta Mendaroko 50 bat korrikalarik amaitu dute Behobia-Donostia lasterketa



zena eman zuten 25.379 pertsonatik 20.414 korrikalari agertu ziren Behobiako irteera marrara, Behobia-Donostia lasterketan parte hartzera, eta horietatik 20.270 antxixikari ailegatu ziren Donostian zegoen helmugara. Emakumezkoen parte-hartzea aurten ere igo egin da eta lasterkarien %25,58a izatera iritsiz errekor berria ezarri dute. Gure ordezkariak dagokionez, Elgoibarko 37 saltakarik eta Mendaroko zortzik amaitu zuten 20 kilometroko proba. Horiez gainera, Idoia Txurruka patinatzaile elgoibartarrak eta Asier Arriola patinatzaile mendaroarrak ere amaitu zuten proba, 1:06:58ko denbora egin du Txurrukak (93. postua) eta 56:00ko denbora egindu Arriolak (50. postua). Maite Maiorak eginiko lasterketa nabarmendu behar da, mendi lasterketan



Arg.: Fotobos

erakutsi duen sasoiak asfalto gainean aurrenekoen artean egoteko balio izan baitio, eta meritu handiko bosgarren postua eskuratu du mendaroarrak emakumezkoen sailkapen nagusian, gainera, beteranoen kategoriako irabazlea ere izan da, 01:16:24ko denborarekin. Gizonezkoetan Osel Sanchezek lortu zuen denborarik onena (01:11:15) gure ordezkarien artean, 85. postuan sailkatuta. Gizonezkoetan ezustekoa eman zuen Txindoki Atletismo Taldeko Eneko Agirrezabal segurarrak, eta garaipena lortu zuen 01:01:41eko denbora egin eta gero. Orain arte Diego Garcia zen proba hau irabazten azken gipuzkoarra, azkoitiarrak 1994an lortu zuen garaipenetik hona ez baitzen beste gipuzkoarrik igo podiumaren gorenera. Emakumezkoetan Nuria Lugueros izan zen azkarrena (1:12:42).

ELGOIBARKO ETA MENDAROKO KORRIKALARIEN SAILKAPENA

ELGOIBAR

Postua	Izen-Abizenak	Denbora
85	Osel Sanchez Moya	01:11:15
112	Julen Salaberria Anton	01:11:50
439	Inigo Iturbe Ortiz De Zarate	01:17:23
466	Iker Arrillaga Osuna	01:17:36
632	Gorka Cebrian Arregi	01:19:03
1.198	Aitor Aranzamendi Iriondo	01:22:54
1.517	Oier Irazabal Garcandia	01:24:32
2.331	Martin Dominguez Lopez	01:27:59
2.774	Berex Ortiz Ardanza	01:29:12
3.333	Mikel Elkoroiribe Beristain	01:30:48
4.419	Oscar Uria Bikandi	01:33:52
4.849	Angel Eguren Belaustegi	01:34:49
5.114	Francisco Javier Boo Fernandez	01:35:27
5.228	Julen Merino San Millan	01:35:43
6.233	Sergio Martinez Roman	01:38:02
6.878	Pilar Arriola Diez	01:39:16
7.010	Aitor Arruabarrena Gurrutxaga	01:39:30
7.077	Sergio Aguirregomezorta Uriarte	01:39:37
7.097	Mikel Elustondo Lejardi	01:39:38
7.103	Unai Usatorre Juaristi	01:39:39
7.449	Javier Hernando Albert	01:40:21
8.555	Miguel Angel Montes Crespo	01:42:35
9.392	Jokin Rodriguez Magunazelaia	01:44:11
10.459	Iker Panizo Diego	01:46:23
10.480	Denis Saiz Saborido	01:46:24
10.710	Amaia Jauregi Barrutia	01:46:57
10.718	Ainhoa Aduriz Garcia	01:46:58
11.032	Gotzon Gurrutxaga Bengoetxea	01:47:37
11.709	Nora Miguez Perez	01:48:59
11.710	Haritz Arribillaga Elizburu	01:48:59
12.373	Beñat Konde Untzilla	01:50:18
12.375	Lander Azpiazu Garay	01:50:18
12.816	Sandra Montes Perez	01:51:18
13.105	Eneko Arrizabalaga Garate	01:51:54
14.500	Alexander Bilbao Aldekoa-Otalora	01:55:04
14.691	Oscar Rey Alonso	01:55:29
17.173	Samuel Ruiz De Lorenzo	02:03:36

MENDARO

Postua	Izen-Abizenak	Denbora
368	Maite Maiora Elizondo	01:16:24
2.652	Borja Rodriguez Barreras	01:28:50
3.990	Israel Soto Calderon	01:32:44
5.585	Igor Ezenarro Arriola	01:36:34
7.154	Jon Romar Iriarte	01:39:43
7.735	David Garcia Fernandez	01:40:57
14.310	Jon Ekarkamo Bergara	01:54:39
14.314	Jurdan Ezenarro Arriola	01:54:39



Osasun gida



RPS233/13

Tel.: 943 366 377

San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

NATUR HOUSE

Ainara Iriondo Ansola

GAZA ELKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Torbio Etebarria, 22
Eibar
677 551 850



fisio&más

Fisioterapia aurreratu eta
Kirol Berregokitzea



Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 963 628
www.fisio-mas.com

RPS 87/12

RPS 271/12

ainhoa
fisioterapia

Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar
943 531 953
669 565 745

RPS 183/12

Uzuri
optika audio

Elgoibar
Tel.: 943 740 359

Deba
Tel.: 943 192 192

leku
eder

hortz klinika

RPS 171/12

Elena Herrero Lobo

Aita Agirre Enparantza, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053

federópticos

ikus

RPS 65/07

San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

BUELTAN DA ELGOIBARKO IZARRAREN TONBOLA!

Aurreko urteetan TONBOLAK izan duen estimazioak bultzatuta, aurten ere **abenduaren 24an**, 11:00etatik aurrera, Elgoibarko Izarraren tonbola jarriko dugu Kalegoen plazan. Opariak jasotzen jarraitze dugu! Eskerrik asko!



"hili"
liburua



Ilerako
produktuak



"Kalexar Rekos"
musika cd-ak



Material
didaktikoa



Kalkulagailu
zientifikoa



Sukalderako
laban sorta

Elgoibarko Izarraren aldeko
TONBOLA

Abenduak 24,
11:00etatik 14:00etara,
Kalegoen plazan

1.000 erregalu
baino gehiago...



USB-ak



Manpasa



Giltzatak



Poltzak



Kamisetak



Lisaburdina



Olentzero eta Mari
Domingiren pin-ak

... eta opari
gehiago!

JOLASEN ASTEA

ERAKUSKETAREN ORDUTEGIA:

AZAROAREN 24tik 26ra, 17:00etatik 19:30era.

AZAROAK 27, 11:30etatik 14:00etara.

KULTUR ETXERAKUSKETA GELA
0-8 URTE

AITA AGIRRE KULTURGUNEKO ERAKUSKETA GELA
+9 URTE

PROGRAMAKETA

AZAROAK 24, ASTEAZKENA

17:00-17:45 JOLAS TXOKOA 0-3 URTE

18:00-18:45 JOLAS TXOKOA 0-3 URTE

17:30 BRAINS 9-11 URTE

18:30 404 +12 URTE

AZAROAK 25, OSTEGUNA

17:00-17:45 JOLAS TXOKOA 4-5 URTE

18:00-18:45 JOLAS TXOKOA 4-5 URTE

17:30 ASMAKIZUN JOLASA 9-11 URTE

18:00 RUMMI +12 URTE

18:30 PICNIC 9-11 URTE

AZAROAK 26, OSTIRALA

17:00-17:45 JOLAS TXOKOA 6-8 URTE

18:00-18:45 JOLAS TXOKOA 6-8 URTE

17:30 PIEZAK KOKATZEA 9-11 URTE

18:00 "ZENBAT PIEZA DITU?" LEHIAKETA
(KALEAN ZECHAR)

18:00 BALDOMERO +12 URTE

18:30 ROLL TO THE TOP +12 URTE

19:00 KLASK +12 URTE

AZAROAK 27, LARUNBATA

12:00-12:45 JOLAS TXOKOA 4-5 URTE

13:00-13:45 JOLAS TXOKOA 6-8 URTE

11:45 DOBBLE XXL 9-11 URTE

12:15 MAKE MAKE +12 URTE

12:45 PISTA GURUTZATUAK 9-11 URTE

13:15 UNANIMO +12 URTE

**JOLASEN PARTE HARTZEKO,
MOMENTUAN BERTAN EMAN BEHARKO
DA IZENA!**

**JOLAS TXOKOETAN
PARTE HARTZEKO IZENA
EMAN BEHARKO DA!**



Antolatzaileak:

Babeslea:

Laguntzaileak:



EL GORRI
GELA
ANTOLATZAILEAK